

VII. Mapa Soziolinguistikoa 2021

EUSKO JAURLARITZA




GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA





VII. Mapa Soziolinguistikoa 2021

Vitoria-Gasteiz, 2025



Lan honen bibliografia-erregistroa
Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Nagusiaren katalogoan aurki daiteke:
<https://www.katalogoak.euskadi.eus/katalogobateratua>

Argitaraldia:	1.a, 2025eko apirila
Ale-kopurua:	1.415
©	Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa. Kultura eta Hizkuntza Politika Saila
Internet:	www.euskadi.eus
Argitaratzailea:	Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco Donostia-San Sebastian, 1 – 01010 Vitoria-Gasteiz
Azala eta maketazioa:	Concetta Probanza
Inprimatzailea:	Leitzaran Grafikak
ISBN:	978-84-457-3808-5
Lege Gordailua:	LG G 141-2025

AURKIBIDEA

HITZAURREA

Ibone Bengoetxea Otaolea,
Eusko Jaurlaritzako lehenengo lehendakariordea eta
Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburua

7

VII. MAPA SOZIOLINGUISTIKOA, 2021

Fitxa teknikoa eta metodologia	11
--------------------------------	----

1. BIZTANLERIA	13
----------------	----

1.1. Biztanleriaren bilakaera eta egitura	13
1.2. Atzerriko immigrazioa	19
1.3. Irakaskuntza ez-unibertsitarioko hizkuntza-ereduak	23
1.4. Helduen euskalduntzea	28

2. HIZKUNTZA-GAITASUNA	35
------------------------	----

2.1. Hizkuntza-gaitasuna Euskal Autonomia Erkidegoan	35
2.2. Hizkuntza-gaitasuna lurraldearen arabera	37
2.3. Hizkuntza-gaitasuna eskualdearen arabera	39
2.4. Hizkuntza-gaitasuna gune soziolinguistikoaren arabera	42
2.5. Hizkuntza-gaitasuna udalerriaren arabera	46
2.6. Hizkuntza-gaitasuna adinaren arabera	47
2.7. Hizkuntza-gaitasuna sexuaren arabera	52

3. LEHEN HIZKUNTZA	57
3.1. Lehen hizkuntza Euskal Autonomia Erkidegoan	57
3.2. Lehen hizkuntza lurraldearen arabera	59
3.3. Lehen hizkuntza eskualdearen arabera	62
3.4. Lehen hizkuntza guneko soziolinguistikoaren arabera	65
3.5. Lehen hizkuntza udalerriaren arabera	67
3.6. Lehen hizkuntza adinaren arabera	71
3.7. Lehen hizkuntza sexuaren arabera	77
3.8. Euskaldunak lehen hizkuntzaren arabera (BILA indizea)	80
3.9. Euskaldunak lehen hizkuntzaren, adinaren eta sexuaren arabera	90
 4. ETXEAN ERABILTZEN DEN HIZKUNTZA	 95
4.1. Etxean erabiltzen den hizkuntza Euskal Autonomia Erkidegoan	95
4.2. Etxean erabiltzen den hizkuntza lurraldearen arabera	96
4.3. Etxean erabiltzen den hizkuntza eskualdearen arabera	99
4.4. Etxean erabiltzen den hizkuntza guneko soziolinguistikoaren arabera	102
4.5. Etxean erabiltzen den hizkuntza udalerriaren arabera	105
4.6. Etxean erabiltzen den hizkuntza adinaren arabera	108
4.7. Etxean erabiltzen den hizkuntza sexuaren arabera	111
4.8. Euskaldunek etxean erabiltzen duten hizkuntza adinaren, sexuaren eta lehen hizkuntzaren arabera	112
 5. LABURBILDUZ	 117
 6. TAULEN AURKIBIDEA	 121
 7. GRAFIKOEN AURKIBIDEA	 123

HITZAURREA



IBONE BONGOETXEA OTAOLEA

Eusko Jaurilaritzako lehenengo
lehendakariordea eta
Kultura eta Hizkuntza
Politikako sailburua

Gizarte konplexu batean bizi gara eta hizkuntza eta kultura aniztasuna gero eta handiagoa da. Hizkuntzak elkarreraginean aritzeko eta eraldatzeko moduak etengabe ari dira aldatzen, batez ere, teknologiaren aurrerapenaren eta migrazioaren ondorioz. Horregatik, begirada sakon eta analitikoa eskaini behar diegu gure hizkuntzen erabileran eta pertzepzioan eragiten duten dinamika sozialei, hitz egiten ditugun hizkuntzak ez baitira komunikazio-tresna soilak, baizik eta nortasunaren, pertenezaren eta erresistentzia kulturaren tresnak ere.


Mapa Soziolinguistikoak EAEko euskararen egoera eta bilakaera soziala ezagutzeko aukera ematen digu bost urtean behin. Horretarako, Eustatek Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Zentsuan batutako hiru aldagai aztertzen ditu: hizkuntzaren ezagutza, lehen hizkuntza eta etxeko hizkuntzaren erabilera. Horrela, VII. Mapak euskararen egungo egoeraren eta azken berrogei urteetako bilakaeraren argazki argia erakusten digu, eta datozen urteetan aurre egin behar diegun hizkuntza-erronkak agerian uzten ditu.

Mende honen hasiera honetan errekupeazio demografiko txikia izan da, atzerrian jaiotako biztanleriari esker (gazteak eta emakumezkoak gehienak), baina saldo begetatiboa negatiboa da, biztanleriaren zahartze-prozesuak aurrera jarraitzen du eta jaiotza-tasa jaitsi da. Hiru gertaera hauek eragina dute biztanleriaren eta hizkuntzaren bilakaeran.

EAEen 1981ean baino 430.000 euskaldun gehiago dago orain (bikoiztu egin da ehunekoak: % 21,9 vs. % 42,5). Euskaldunen hazkundea EAEko hiru lurraldeetan gertatu da, eta bereziki eremu erdaldunean. Gaur egun, euskaldun gehienak gazteen artean daude, hizkuntza-ereduen ezarpenak umeak eta gazteak euskalduntzeko izan dituen ondorioei esker. Familia bidezko transmisioari dagokionez, gero eta gehiago dira etxean euskara erdarekin batera jasotzen ari diren umeak, eta horrek etxean euskara eta

erdara, biak, erabiltzen dutenen hazkundera ekarri du. Aldi berean, azpimarratzekoa da euskararen biziberritze-prozesuan emakumeak izaten ari diren protagonismoa.

Euskaldunen ezaugarriak, beraz, asko aldatu da azken urteetan. *VII. Mapa Soziolinguistikoak* aldaketa horiek hobeto ulertzen lagunduko diguten hainbat datu biltzen ditu.



VII.
Mapa
Soziolinguistikoa
2021



Fitxa teknikoa eta metodologia

Izena: VII. Mapa Soziolinguistikoa, 2021

Eragiketaren kodea: 020702 (Euskal Estatistika Plana)

Egilea: Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Unibertsoa: EAEko 5 urte edo gehiagoko biztanleak

Maiztasuna: bost urte

Datuen iturria: Biztanleriaren eta Etxebizitzen Zentsua 2021

- Erakunde arduraduna: EUSTAT
- Eragiketa-mota: Zentsua
- Eragiketaren kodea: 010152 (Euskal Estatistika Plana)
- Parte hartzen duten beste erakunde batzuk (administrazio-jatorriko fitxategiak hornitzen dituzten administrazioak)
- Maiztasuna: hamar urte
- Metodologia: mistoa, hau da, Zentsua informazio-iturri desberdinak konbinatuz osatzen da:
 - EUSTATen biztanleen erregistroa
 - Jatorri administratiboko informazio estatistikoa
 - Inkestetatik eskuratutako informazioa: Inkesta demografikoa 2021 (EUSTAT), Biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko inkesta (EUSTAT), INEren Biztanleriaren Zentsua (inkesta) eta Biztanleriaren eta Etxebizitzen Funtsezko Ezaugarrien Inkesta 2021 (INE)
- Datuen jatorriaren arabera metodologia: EUSTATen Biztanleriaren Erregistroa kontuan hartzen da eta administrazio-iturrietako eta inkestetako informazioa bateratzen dira.

1. BIZTANLERIA

1.1. Biztanleriaren bilakaera eta egitura

2023ko Biztanleriaren Udal Erroldaren eta Euskararen Adierazle Sistemaren (EAS) arabera, Euskal Autonomia Erkidegoak 2.196.745 biztanle ditu. 1981eko datuekin konparatuz, biztanleriak gora egin du (54.930 pertsona).

Lurraldeei begira, Araban biztanleriak gora egin du aztertutako aldi guztietan. Gipuzkoak bilakaera demografiko positiboa izan du mende berria sartzearekin batera, 2001. urtetik 2023. urtera arte hain zuzen ere. Bizkaian, ordea, populazioak behera egin du 1981etik, hamarkada bakar batean izan ezik (2001etik 2011ra artekoa).

Biztanleriak mende honen hasieratik hona izan duen hazkunde txiki horrek inflexio-puntua suposatu du populazioaren bilakaerari dagokionez. Azken bi hamarkadetan etorritako atzeritarrei esker, biztanleria hazi egin da, nahiz eta zahartze-prozesuak aurrera jarraitu duen.

1. taula. Biztanleriaren bilakaera. EAE, 1981-2023

	1981	1991	2001	2011	2023
EAE	2.141.809	2.104.041	2.079.210	2.174.033	2.196.745
Araba	257.850	272.447	284.596	318.730	332.851
Bizkaia	1.189.278	1.155.106	1.122.180	1.152.406	1.144.019
Gipuzkoa	694.681	676.488	672.434	702.897	719.875

Iturria: EUSTAT eta EAS.

Hiriburuetako datuei erreparatuz, Gasteiz izan da azken berrogeita bi urteotan biztanleriaren hazkunde handiena izan duena (%32). Izan ere, 60.500 pertsona baino gehiagoko hazkundera izan du. Donostiako biztanleriak ere gora egin du, baina

neurri txikiagoan (%7,9), 13.400 pertsonako saldo positiboa du. Bilbok, aldiz, %13ko galera izan du, 1981ean baino 51.300 pertsona gutxiago bizi baita bertan 2023an.

2. taula. Hiriburuetako biztanleriaren bilakaera. EAE, 1981-2023					
	1981	1991	2001	2011	2023
Gasteiz	189.533	206.116	214.676	238.128	250.100
Bilbo	393.821	369.839	347.452	351.965	342.484
Donostia	169.228	171.439	178.131	182.026	182.641

Iturria: EUSTAT eta EAS.

EAEko biztanleria osoaren %51,5 emakumezkoak dira eta %48,5 gizonezkoak. 0-19 urte bitartekoen artean, gehiago dira gizonezkoak emakumezkoak baino, eta 20-64 urte bitartekoen artean ez dago ia alderik bi sexuen banaketari dagokionez. Nabarmentzekoa da 65 urte edo gehiagokoen artean, aldiz, askoz gehiago direla emakumezkoak gizonezkoak baino (%57,2 versus %42,8).

Kontuan hartu behar da emakumezkoen bizi-itxaropena 86,1 urtekoa dela, eta gizonezkoena, ordea, 80,5ekoa.

3. taula. Biztanleriaren banaketa adin-talde nagusien eta sexuaren arabera. EAE, 2023						
Adin-taldeak	Pertsonak			Ehunekoak		
	Guztira	Emakumezkoa	Gizonezkoa	Guztira	Emakumezkoa	Gizonezkoa
Guztira	2.196.745	1.131.456	1.065.289	100	51,5	48,5
0-19	399.011	193.304	205.707	100	48,4	51,6
20-64	1.281.696	642.799	638.897	100	50,2	49,8
≥ 65	516.038	295.353	220.685	100	57,2	42,8

Iturria: EUSTAT eta EAS.

Adinari dagokionez, 1981-2023 epean, 65 urtetik gorako populazioaren ehunekoak 14,3 puntuko igoera izan du. 1981ean, EAEn %9,2 ziren 65 urte edo gehiagokoak, 2023an, aldiz, %23,5 dira. Europako ehunekorik altuenetakoa da, laugarren postuan Italia (%24), Portugal (%24) eta Bulgariaren (%23,5) atzetik.

Era berean, 20 urtetik beherakoen ehunekoa ia erdira jaitsi da berrogeita bi urtean. Horrela, 20 urte baino gutxiago zutenak 1981ean, biztanleriaren %34,2 ziren; 2023an, aldiz, %18,2 dira. Gaur egun, 65 urtetik gorakoak 20 urtetik beherakoak baino gehiago dira EAEn (%23,5 versus %18,2).

4. taula. Biztanleriaren bilakaera adin-talde nagusien arabera. EAE, 1981-2023 (%)

Adin-taldeak	1981	1991	2001	2011	2023
Guztira	2.141.809	2.104.041	2.079.210	2.174.033	2.196.745
0-19	34,2	25,5	17,5	17,4	18,2
20-64	56,6	61,9	64,5	63,1	58,4
≥ 65	9,2	12,6	18	19,5	23,5

Iturria: EUSTAT eta EAS.

Populazioaren adin-taldeen araberako egitura antzekoa da EAEn eta hiru lurraldeetan. 65 urtetik gorako populazioaren ehunekoak 14,3 puntuko igoera izan du berrogeita bi urtean EAEn; Araban %8,6 izatetik %22,2 izatera, Bizkaian %9,2 izatetik %24 izatera eta Gipuzkoan berriz %9,4 izatetik %23,3 izatera pasatu dira. 20 urtetik beherakoen ehunekoek, berriz, beherakada izan dute 1981etik hona. Honenbestez, hiru lurraldeetako 65 urtetik gorakoak 20 urtetik beherakoak baino gehiago dira. Adin-talde horien arteko alderik handiena Bizkaiak du (6,7 puntu), ondoren Gipuzkoak (4,3 puntu) eta azkenik Arabak (2,9 puntu).

Arabak du biztanleria gazteena, izan ere, nagusienen adin-taldean ehunekoa Bizkaikoa eta Gipuzkoakoa baino baxuagoa da eta, aldi berean, gazteena zertxobait altuagoa (Bizkaiarekiko 2 puntukoa). Bestalde, Bizkaiak du hiru lurraldeetatik biztanleria zaharkituena, biztanleen %24 baita 65 urte edo gehiagokoa.

Bestalde, aipagarria da azken urte hauetan 85 urte edo gehiagokoek izan duten hazkundera. Izan ere, berrogeita bi urtean 85 urte edo gehiagokoen ehunekoa zortzitik biderkatu da, 1981ean %0,5 izatetik biztanleriaren %4,1 izatera iritsi da 2023an.

Sexu-banaketari dagokionez, 85 urte edo gehiago dituzten emakumeak EAEko emakume guztien %5,4 dira; gizonak, aldiz, gizon guztien %2,7 dira (%0,8 versus %0,3 ziren 1981ean).

5. taula. 85 urte edo gehiagoko biztanleriaren bilakaera sexuaren arabera. EAE, 1981-2023 (%)

	Pertsonak			Ehuneakoak		
	Guztira	Emakumezkoa	Gizonezkoa	Guztira	Emakumezkoa	Gizonezkoa
1981	11.601	8.290	3.311	0,5	0,8	0,3
2023	91.052	61.990	29.062	4,1	5,4	2,7

Iturria: INE.


Jaiotza-tasek beheranzko bilakaera izan dute azken berrogeita bi urtean. 1981ean 1.000 biztanleko 12,7 haur jaiotzen ziren, orain berriz, tasa 6,1ekoa da. Nabarmentzekoa da 1981etik 1991ra izaniko beherakada, berrogeita bi urteetan handiena (5 puntu). Hurrengo bi hamarkadetan tasak gora egin zuen, nahiz eta ondoren berriro behera egin.

6. taula. Jaiotza-tasen bilakaera. EAE, 1981-2023 (‰)

1981	1991	2001	2011	2023
12,7	7,7	8,5	9,7	6,1

Iturria: EUSTAT eta EAS.

Populazioaren piramidearen egitura antzekoa da EAEn eta hiru lurraldeetan.



Gaur egun, 252 udalerri daude EAEn. Usansolo udalerri bihurtu berri da. Izan ere, 2023ko abenduan erregistratu zen Toki Erakundearen Erregistroan. Hori dela eta, oraindik ez dago Usansolori buruzko datu estatistikorik udalerri mailako irakurketa egiteko; beraz, 251 udalerri izango dira kontuan.

EAEko udalerrien tamainaren arabera, udalerriak hiru multzotan banatu daitezke: txikiak (5.000 biztanletik beherakoak), tamaina ertainekoak (5.000-20.000 biztanle artekoak) eta, azkenik, udalerri handiak (20.000 biztanletik gorakoak).

7. taula. Udalerrien sailkapena, udalerrien tamainaren arabera. EAE, 2023

	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	EAE
Txikiak (< 5.000 biztanle)	47	77	54	178
Ertainak (5.000-20.000 biztanle)	3	24	27	54
Handiak (> 20.000 biztanle)	1	11	7	19
Guztira	51	112	88	251

Iturria: EUSTAT eta EAS.

Hiru lurraldeetan, biztanleriaren bilakaera eta adinaren araberako egitura oso antzekoak izan arren, alde nabaria dago biztanleria-nukleoaren tamainaren araberako biztanleria-banaketan. Lurralde bakoitzean biztanleriaren banaketa aztertzen hasi aurretik, kontuan hartu behar da EAE nagusiki hiritarra dela. Izan ere, 20.000 biztanle baino gehiagoko udalerri batean bizi da biztanleriaren % 64,4.

Arabian, biztanleriak kontzentrazio- eta polarizazio-tasa handia du. Udalerri bakar batean, Gasteizen, lurraldeko populazioaren %75 baino gehiago bizi da. Tamaina ertaineko Laudio, Amurrio eta Agurain izan ezik, gainontzeko 47 udalerriak txikiak dira, eta guztira Arabako biztanleriaren %14,7 bizi da udalerri horietan.

Bizkaian ere, biztanleria kontzentrazio-tasa handia du, baina ez da Arabakoa bezain polarizatua. Bizkaian, biztanleriaren ia %70 udalerri handietan bizi da, 11 udalerri dira guztira, eta denak Bilbo Handian kokatuta daude, Durango izan ezik. 5.000 biztanle baino gutxiagoko udalerriek dagokienez, Bizkaiko populazioaren %9,5 bizi da, eta udalerri ertainetan, populazioaren %21,4.

Azkenik, Gipuzkoan biztanleria askoz ere banatuago dago lurralde osoan. Udalerri handietan biztanleriaren erdia (%52,1) bizi da; eta gainera, Bizkaian ez bezala, udalerri horiek ez daude hiriburuaren inguruan kokatuta. Bestalde, udalerri txikietan populazioaren %8,5 bizi da. Hala ere, aipagarriena udalerri ertainen garrantzia da, Gipuzkoako biztanleriaren ia %40 hartzen baitute.

8. taula. Bost udalerri populatuena lurraldearen arabera. EAE, 2023

		Guztira	%(lurraldea)
ARABA	Gasteiz	250.100	75,1
	Laudio	18.030	5,4
	Amurrio	10.394	3,1
	Agurain	5.254	1,6
	Iruña Oka	3.664	0,1
BIZKAIA	Bilbo	342.484	29,9
	Barakaldo	98.783	8,6
	Getxo	75.430	6,6
	Santurtzi	45.699	4,0
	Portugalete	44.919	3,9
GIPUZKOA	Donostia	182.641	25,4
	Irun	60.191	8,4
	Errenteria	39.665	5,5
	Eibar	26.926	3,7
	Zarautz	23.118	3,2


Iturria: EUSTAT eta EAS.

1.2. Atzerriko immigrazioa

EAEko atzerriko immigrazioaren fenomenoak aztertzeko, azken hogeita bi urteak aztertuko ditugu (2001-2023). Izan ere, epe horretan atzerrian jaiotakoen kopuruak hazkunde handia izan du.

2023ko Biztanleriaren Udal Erroldaren arabera, EAEko biztanleen %12,4 atzerrian jaiotakoa da. 2001ean, aldiz, %2,2 besterik ez ziren atzerrian jaiotakoak. Horrek esan nahi du, epe horretan, atzerriko biztanleria ia halako sei dela (46.540 versus 272.388).

2. grafikoa. Atzerrian jaiotako biztanleriaren bilakaera. EAE, 2001-2023 (%)




Iturria: EUSTAT eta EAS.

Lurraldeei dagokienez, Arabak atzerrian jaiotako populazioaren ehunekorik altuena izan du hogeita hiru urte hauetan, EAEko batez bestekoaren gainetik. 2001ean atzerrian jaiotakoak %2,6 ziren Araban, %2,3 Gipuzkoan eta %2,1 Bizkaian. Gaur egun, hiru lurraldeetan ehunekoak gora egin du, baina Araban ehunekoak handiagoa izaten jarraitzen du (%14,5), Bizkaian eta Gipuzkoan baino (%11,8 eta %12,3 hurrenez hurren).

Eskualdeetako ehunekoak aztertuta, aldea dago batetik bestera. EAEn atzerrian jaiotako ehuneko handiena duten eskualdeak Arabako Lautada (%15,9) eta Gipuzkoako Bidasoa Beherea (%14,7) dira. Txikiena duten eskualdeak, berriz, Arabako Aiaraldea eta Mendialdea dira (%8,7 eta %7,9 hurrenez hurren).

3. grafikoa. Atzerrian jaiotako biztanleria eskualdearen arabera. EAE, 2023 (%)




%10aren azpitik daudenak horiz nabarmendu dira.

Iturria: EUSTAT eta EAS.


Udalerrietako datuei erreparatuz, aldeak are handiagoak dira. Bost udalerrri Euskal Autonomia Erkidegoak duen ehunekoaren oso gaineratik daude, hau da, %12,4ren gaineratik (Navaridas, Ordizia, Baños de Ebro/Mañueta, Leza eta Ubide). Bestalde, ehunekorik txikiena duten udalerrriak Kripan, Berastegi, Orexa, Garai eta Beizama dira. Azken bost hauen ehunekoa ez da %3,5era iristen.

Jatorriari erreparatuta, gaur egun, Amerikan jaiotakoak biztanleria atzeritarren erdia baino gehiago dira EAEn (%54,7). Afrikan zein Europan jaiotako ehunekoa antzekoa da (%21,1 eta %17,8 hurrenez hurren). Asian jaiotako ehunekoa txikia da, nahiz eta gero eta gehiago diren (%6,2), eta are txikiagoa Ozeanian jaiotakoena (%0,2).

4. grafikoa. Atzerrian jaiotakoen ehuneko handiena eta txikiena duten udalerriak. EAE, 2023 (%)

Iturria: EUSTAT eta EAS.

Lurraldeei begira, Araban ere Amerikan jaiotakoak dira nagusi (%47,5), baina Bizkaian eta Gipuzkoan baino gutxiago (azken bietan Amerikan jaiotakoak biztanleria atzerritarren erdia baino gehiago dira). Afrikan jaiotakoek Europan jaiotakoek baino ehuneko handiagoa dute Araban eta Bizkaian: Araban %30,6 versus %15,3 eta Bizkaian %19,2 versus %16,5. Gipuzkoan, ordea, europarrak afrikarrak baino gehiago dira: %21,3 versus %18,9.


5. grafikoa. Atzerrian jaiotako biztanleriaren jatorria. EAE, 2023 (%)

Iturria: INE.

Sexuari dagokionez, 0-24 urte bitartekoen artean, gizonezkoak gehiago badira ere, 25 urtetik gorakoen artean emakumezkoak dira nagusi. Izan ere, atzerrian jaiotako emakumezkoak gizonezkoak baino gehiago dira EAEn (% 52,4 versus % 47,6).

Lurraldeei erreparatuta, alde gutxi dago EAErekiko.


6. grafikoa. Atzerrian jaiotako biztanleak sexuaren arabera. EAE, 2023 (%)



Iturria: INE


Atzerrian jaiotako biztanleriaren ezaugarri nagusienetako bat islatzen da piramidean. Biztanleria gaztea da, bertan jaiotako biztanleriarekin konparatuz gero. Izan ere, atzerrian jaiotako biztanleen ia % 80 berrogeita hamar urtez azpikoa da.

Adin-talde jakin batzuetan, bereziki 20 eta 34 urte bitartekoetan, atzerrian jaiotako populazioak pisu handia du biztanleria osoarekiko (% 26,9).



1.3. Irakaskuntza ez-unibertsitarioko hizkuntza-ereduak


2022/23 ikasturtean EAEn 365.921 ikasle daude matrikulatuta araubide orokorreko irakaskuntza ez-unibertsitarioan (kanpoan utzi dira Helduen Hezkuntza Iraunkorreko ikasleak). Horietatik %70,2, hau da, 256.957 ikasle, D ereduan daude matrikulatuta. B ereduan, berriz, 62.670 ikasle (%17,1), A ereduan 44.041 (%12) eta X ereduan 2.253 (%0,6).



Erkidegoko hiru lurraldeetako datuak konparatuz gero, desberdintasunak antzematen dira batetik bestera.


Gipuzkoak du D ereduaren matrikulatutako ikasleen ehunekorik handiena, ikasleen %84,2k ikasten baitu eredu honetan; EAEko ehunekoaren gainetik (%70,2). B ereduaren %6,9 dago matrikulatua, eta A ereduaren %8,9. Bizkaian D ereduaren ikasten ari dira ikasleen %65,1, B ereduaren %20,7, A ereduaren %13 eta gainerako %1,2 X ereduaren. Arabarren kasuan, ikasleen erdia baino gehiago D ereduaren matrikulatua badago ere (%56,2), B ereduaren ikasten du ikasleen %28,1ek, eta A ereduaren %15,7k.

9. grafikoa. Hizkuntza-ereduak lurraldearen arabera. EAE, 2022/23 (%)



Iturria: EUSTAT eta EAS.

Hizkuntza-ereduak martxan jarri zirenetik asko aldatu da egoera. 1983/84 ikasturtean gehiengoa A ereduaren matrikulatzen zen (%64), eta X ereduaren, beste %13,8; orain, aldiz, %12 eta %0,6 dira hurrenez hurren A eta X ereduaren matrikulatutako ikasleak. Kontrakoa gertatu da D ereduarekin, hazkunde handia izan baitu. Ikasleen %14,2 ziren 1983/84 ikasturtean, eta %70,2 dira egun. B ereduko matrikulazio kopuruak ere gora egin du, neurri txikiagoan bada ere, %8,1 izatetik %17,1 izatera pasa da.



9. taula. Irakaskuntza ez-unibertsitarioko ikasleen bilakaera hizkuntza-ereduaren arabera. EAE, 1983/84-2022/23

	Pertsonak					Ehunekoak			
	Guztira	D	B	A	X	D	B	A	X
1983/1984	524.448	74.342	42.401	335.603	72.102	14,2	8,1	64,0	13,8
1988/1989	484.437	93.367	69.701	317.242	4.127	19,3	14,4	65,5	0,9
1993/1994	405.405	107.135	70.767	223.324	4.179	26,4	17,5	55,1	1,0
1998/1999	327.150	124.729	66.047	133.492	2.882	38,1	20,2	40,8	0,9
2003/2004	301.497	145.783	67.967	85.865	1.882	48,4	22,5	28,5	0,6
2008/2009	325.542	187.543	75.274	60.732	1.993	57,6	23,1	18,7	0,6
2013/2014	359.130	231.038	70.721	55.332	2.039	64,3	19,7	15,4	0,6
2018/2019	375.949	254.721	69.562	49.392	2.274	67,8	18,5	13,1	0,6
2022/2023	365.921	256.957	62.670	44.041	2.253	70,2	17,1	12,0	0,6

Iturria: EUSTAT eta EAS.

Eredu bakoitzean matrikulatutako ikasleen kopurua ikasketa mailaren arabera aldatu egiten da. Ikasketa mailetan zenbat eta gorago joan, orduan eta ikasle gutxiago daude D ereduaren matrikulatuta.

D ereduaren matrikulatutako ikasle gehien Haur Hezkuntzan daude, %83,2k ikasten baitu eredu honetan. B ereduaren %14,8 dago matrikulatua, A ereduaren %1,6 eta X ereduaren, berriz, %0,5.

Lehen Hezkuntzan ere, D ereduaren ikasten dutenak dira gehiengoak alde handiz: %78,6. B ereduaren ikasleen %17,5k ikasten du, A ereduaren %3,1ek eta X ereduaren %0,8k.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, ikasleen %72,8 D ereduaren dago matrikulatua, B ereduaren %20,8, A ereduaren %5,7 eta X ereduaren %0,8.

Batxilergoan ere, gehiengoak D ereduaren ikasten du (%67,2) eta A ereduaren matrikulatutako ikasleen ehunekoa laurdena da (%25,1). B ereduaren matrikulatutakoak, aldiz, %7 dira. X ereduaren %0,8an mantentzen da.

Lanbide Heziketako ikasleen datuak bestelakoak dira. Izan ere, erdiak baino gehiagok A ereduaren ikasten du (%55,6) eta D eta B ereduaren arteko aldea 4 puntukoa besterik ez da; D ereduaren matrikulatutakoak %24,2 dira, eta B ereduaren daudenak %20,2.

Heziketa bereziko ikasleen artean gehiengoak A ereduaren ikasten badu ere, ez dago alde handirik D ereduaren ikasten duten ikasleekin konparatuz (%47,2 versus %41,7). Gainerako ikasleek B ereduaren ikasten dute (%11,1).

10. taula. Irakaskuntza ez-unibertsitarioko ikasleak ikasmailaren eta hizkuntza-ereduaren arabera. EAE, 2022/23

	Pertsonak					Ehunekoa			
	Guztira	D	B	A	X	D	B	A	X
Haur Hezkuntza	73.766	61.338	10.890	1.201	337	83,2	14,8	1,6	0,5
Lehen Hezkuntza	124.151	97.527	21.758	3.868	998	78,6	17,5	3,1	0,8
DBH	88.889	64.688	18.475	5.055	671	72,8	20,8	5,7	0,8
Batxilergoa	32.476	21.827	2.262	8.140	247	67,2	7,0	25,1	0,8
Lanbide Heziketa	44.953	10.874	9.098	24.981	—	24,2	20,2	55,6	—
Heziketa berezia	1.686	703	187	796	—	41,7	11,1	47,2	—
Guztira	365.921	256.957	62.670	44.041	2.253	70,2	17,1	12,0	0,6

2001/02 ikasturtetik hona ereduak maila bakoitzean izandako bilakaerari erreparatuko diogu jarraian: ikasketa maila guztietan D ereduan matrikulatutako ikasleen kopuruak gora egin du, neurri ezberdinetan bada ere.

Haur Hezkuntzan, 2001/02 ikasturtean D ereduan matrikulatuta zegoen ikasleen gehiengoa (%60,8). Azken urteetan igoera handia izan du D ereduak, orain %83,2 baitira. A eta B ereduak behera egin dute; A ereduak %9,7tik %1,6ra eta B ereduak %28,8tik %14,8ra.

Lehen Hezkuntzan, ikasleen erdia D ereduan matrikulatua zegoen (%50,2) eta azken urteetan gorakada izan du, orain %78,6 baitira. B ereduan A ereduan baino ikasle gehiago zeuden orain dela hogeita bat urte (%29,2 versus %19,7), eta gehiago izaten jarraitzen dute egun (%17,5 versus %3,1).


Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, ikasle gehienak D ereduan matrikulatuta zeuden (%40,5). Orain ere gehiengoa dira, eta asko hazi da ehunekoa (%72,8). A eta B ereduetako matrikulek behera egin dute; A ereduan %34,1 izatetik %5,7 izatera pasa dira eta B ereduaren ehunekoa ez da askorik aldatu (%24,7 versus %20,8).

Batxilergoan, 2001/02 ikasturtean gehiengoa ziren A ereduko ikasleak (%57,3), baina %25,1era jaitsi da 2022/23 ikasturtean. D eredua %40,7tik %67,2ra igo da. B ereduak ere igoera izan du, %1,7tik %7ra.

Lanbide Heziketan, Batxilergoan bezala, gehiengoa ziren A eredukoak eta gaur egun ere gehiengoak A ereduan ikasten du, baina ehunekoak behera egin du (%82,7 zen 2001/02an eta %55,6 da 2022/23an). D eta B ereduetako matrikulak, berriz, hazi egin dira: D ereduan %13,3tik %24,2ra pasa dira, eta ehuneko txikiena izaten jarraitzen badu ere, hazkunderik handiena B ereduak izan du (%4tik %20,2ra).

Heziketa berezian, igoera handiena D ereduak izan du (2001/02an %11,1 izatetik 2022/23an %41,7 izatera pasa da), A ereduko matrikulazio ehunekoetara gerturatuz. Nahiz eta A ereduak beherakada izan duen, ikasleen gehiengoa A ereduan matrikulatuta dago oraindik (%80,4 zen 2001/02an eta %47,2 da 2022/23an). Azkenik, B eredukoak %8,5 izatetik %11,1 izatera pasa dira.


11. grafikoa. Irakaskuntza ez-unibertsitarioko ikasleen bilakaera ikasmilaren eta hizkuntza-ereduaren arabera. EAE, 2001/02-2022/23 (%)



Iturria: EUSTAT eta EAS.

1.4. Helduen euskalduntzea

HABEren datutegiaren arabera, 2022/23 ikasturtean 31.787 ikasle matrikulatu dira EAEn euskara ikasteko, maila desberdinetan. Ikasle gehien C1 mailan matrikulatu dira (%31,9), B2an %23,8, B1ean %13,4, A2an %10,3 eta A1ean %14,8. Matrikulaziorik txikiena C2 eta Z mailetan izan da (%4,6 eta %1,3 hurrenez hurren). Z mailan sartzen dira Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Curriculumaren esparrutik kanpo dauden ikastaroak, esate baterako, Euskaltzaindiaren azken arauak ezagutzeko ikastaroak, hitanoaren gainekoak, euskalkia lantzeko, etab. Maila hau lehenago Goi-maila deitzen zen haren parekoa da.

12. grafikoa. Helduen euskalduntzea ikasmailaren arabera. EAE, 2022/23 (%)

Iturria: HABE eta EAS.

Lurraldeei erreparatuta, Araban 4.008 ikasle matrikulatu dira, Bizkaian 16.081 eta Gipuzkoan 11.698.

Ikasleen erdia baino gehiago B2 eta C1 mailetan matrikulatu dira EAEn (%55,7). Araban ia ikasleen ehuneko bera apuntatu da bi maila hauetan: %26,5 B2an eta %26,4 C1ean. Bizkaian bi maila hauen arteko diferentzia handiagoa da, eta ikasle gehien C1 mailan matrikulatu dira. Gipuzkoan, berriz, are nabariagoa da alde hori (%18 B2an eta %32,1 C1ean). Lurralde honek ere du A1ean matrikulatutako ikasleen ehunekorik altuena, EAErekiko 3,2 puntu gehiago. Bizkaiak, aldiz, Erkidegoko batez bestearekiko 2,5 puntu gutxiago dauka A1ean.

11. taula. Helduen euskalduntzea ikasmailaren eta lurraldearen arabera. EAE, 2022/23

	Ikasleak				Ehunekoa			
	EAE	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	EAE	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Guztira	31.787	4.008	16.081	11.698	100	100	100	100
A1	4.702	617	1.984	2.101	14,8	15,4	12,3	18,0
A2	3.279	554	1.473	1.252	10,3	13,8	9,2	10,7
B1	4.254	569	2.211	1.474	13,4	14,2	13,8	12,6
B2	7.548	1.063	4.379	2.106	23,8	26,5	27,2	18,0
C1	10.144	1.056	5.331	3.757	31,9	26,4	33,2	32,1
C2	1.448	149	414	885	4,6	3,7	2,6	7,6
Z	412	—	289	123	1,3	—	1,8	1,1

Iturria: HABE eta EAS.

Azken hogeita hiru urteotako datuei erreparatuz, 2005/06 ikasturtea izan zen ikasle gehien izan zituen ikasturtea maila guztiak kontuan hartuta, 40.000 ikasletik gora izan baitzituen. Hortik aurrera, ordea, ikasleen kopuruak etengabeko jaitsiera izan du, 8.000 baino gehiagokoa hain zuzen ere.

Bestalde, 2005/06 ikasturtera arte ez zen egon C2ko ikastarorik. Azken ikasturtean 1.448 ikaslek eman dute izena C2 mailan.

Era berean, azpimarratzekoa da mende hasieran (2000/01 ikasturtean) B1 zela mailarik jendetsuena (9.843 ikaslerekin), baina hurrengo ikasturteetan B2 eta C1 mailek izan zuten ikasle gehien matrikulatuta. C1 maila pisua hartzen joan da eta egun 10.144 ikasle daude matrikulatuta maila honetan. Ondoren B2 maila kokatzen da, eta C1 eta B2ren arteko aldea handituz joan da ikasturtez ikasturte. B1 maila, berriz, pisua galtzen joan da: 2000/01 ikasturtean aukeratutako lehenengo maila izatetik 2022/23 ikasturtean A1 mailaren azpitik egotera.


12. taula. Helduen euskalduntzearen bilakaera ikasmailaren arabera. EAE, 2000/01-2022/23

	Guztira	A1	A2	B1	B2	C1	C2	Z
2000/2001	37.709	4.508	6.558	9.843	8.422	8.378	—	—
2005/2006	40.068	5.677	6.182	9.523	9.262	9.314	110	—
2010/2011	37.929	3.880	4.624	7.985	9.932	10.344	510	654
2015/2016	35.283	5.412	4.670	5.631	7.943	10.179	721	727
2020/2021	32.502	4.246	3.431	4.217	8.231	10.678	1.351	348
2022/2023	31.787	4.702	3.279	4.254	7.548	10.144	1.448	412

Iturria: HABE eta EAS.

Sexuari erreparatuz, 2022/23 ikasturtean euskara ikasten edo hobetzen aritu diren helduen % 64,4 emakumezkoak dira eta % 35,5 gizonezkoak. Aldea nabarmena da, eta, gorabeherak gorabehera, horrela gertatu da azken hogeita hiru urteotan.


13. grafikoa. Helduen euskalduntzearen bilakaera sexuaren arabera. EAE, 2000/01-2022/23 (%)



Iturria: HABE eta EAS.


Sexuaren arabera, euskara ikasten ari direnen artean, adin-talde guztietan emakumezkoak gizonetzkoak baino gehiago dira, batez ere 41-51 urte bitartekoen artean (%70etik gora), alderik txikiena euskara ikasten ari diren 61 urte edo gehiagokoen artean dago (%52-%54 bitartean dira emakumezkoak), eta baita 16-20 urte bitarteko gazteen artean ere (%57,4 emakumezkoak). Gainerako adin-taldeetan aldeak handiagoak dira (%60tik gora dira emakumezkoak).

14. grafikoa. Helduen euskalduntzea sexuaren eta adinaren arabera. EAE, 2022/23 (%)




Iturria: HABE eta EAS.

Adinari dagokionez, 2022/23 ikasturtean, euskara ikasten ari direnetatik, adin-talderik jendetsuena 16-25 urte bitartekoena da (%28,1), eta ondoren 36-45 urte bitartekoena (%21,6). Ehunekorik txikiena 56 urte edo gehiagokoek dute (%12,5).

15. grafikoa. Helduen euskalduntzea adinaren arabera. EAE, 2022/23 (%)

Iturria: HABE eta EAS.

Mende hasieratik, 56 urte edo gehiagokoak izan dira gutxiengoa euskara ikasten, baina horiek asko hazi dira azken urteotan, 2000/01 ikasturtean %2,4 baino ez ziren eta. Igoerarik handiena, aldiz, 46-55 urte bitartekoek izan dute: %8,7 ziren 2000/01 ikasturtean, eta %20,2 dira orain. Bestalde, ikasle kopuru gehien galdu duen adin-tartea 26-35 urte bitartekoena izan da, %34,1 izatetik %17,5 izatera pasatu baita.


16. grafikoa. Helduen euskalduntzearen bilakaera adinaren arabera. EAE, 2000/01-2022/23 (%)

Iturria: HABE eta EAS.

2. HIZKUNTZA-GAITASUNA

2.1. Hizkuntza-gaitasuna Euskal Autonomia Erkidegoan

2021eko Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Estatistikaren arabera, bost urte edo gehiagoko 2.110.702 biztanle ditu Euskal Autonomia Erkidegoak. Horietatik, 897.878 pertsona euskaldunak¹ dira (%42,5). Beste 322.546 euskaldun hartzaileak² dira (%15,3). Azkenik, 890.027 erdaldunak³ dira (%42,2).



¹ Euskalduna gai da euskaraz ondo edo nahiko ondo hitz egiteko.


² Euskaldun hartzailea:

- Gai da euskara nekez edo ondo ulertzeko, eta baita nekez hitz egiteko ere.
- Gai da ondo ulertzeko, baina ez ondo edo nekez hitz egiteko.

³ Erdalduna ez da gai euskara ez nekez ez ondo ulertzeko, ezta hitz egiteko ere.

Atzera begiratzuz gero, ikusten da euskaldunen ehunekoak nabarmen egin duela gora azken 40 urteotan, 20,6 puntuko hazkundea izan baitu. Euskaldunak %21,9 ziren 1981ean, eta %42,5 dira 2021ean.

18. grafikoa. Euskaldunen bilakaera. EAE, 1981-2021




Iturria: EUSTAT eta EAS.

2021ean, berrogei urte lehenago baino 466.742 pertsona gehiago da gai euskaraz ondo edo nahiko ondo hitz egiteko.

Euskaldun hartzaileen ehunekoa ere hazi egin da 1981etik 2011ra arte (6 puntuko hazkundea). Azken hamarkadan, ordea, jaitsi egin da (4 puntu).

Azkenik, erdaldunek behera egin dute: %65,9 ziren 1981ean, eta %42,2 dira 2021ean. Berrogei urtean ia 24 puntuko jaitsiera izan dute, 1981ean baino 407.198 gutxiago baitira.

19. grafikoa. Hizkuntza-gaitasunaren bilakaera. EAE, 1981-2021 (%)

Iturria: EUSTAT eta EAS.


2.2. Hizkuntza-gaitasuna lurraldearen arabera

2021eko Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Estatistikaren arabera, bost urte edo gehiagoko 316.273 arabarretatik, 95.104 dira euskaldunak (% 30,1).

Bizkaian, 1.103.170 pertsonetatik 409.669 dira euskaldunak (% 37,1).

Gipuzkoak du euskaldunen ehunekorik altuena. Izan ere, 691.259 gipuzkoarretatik, 393.105 dira euskaldunak (% 56,9).

20. grafikoa. Hizkuntza-gaitasuna lurraldearen arabera. EAE, 2021 (%)



Iturria: EUSTAT eta EAS.

13. taula. Hizkuntza-gaitasuna lurraldearen arabera. EAE, 2021

	GUZTIRA	Euskaldunak	Euskaldun hartzaileak	Erdaldunak
Araba	316.273	95.104	51.070	170.099
Bizkaia	1.103.170	409.669	175.878	517.623
Gipuzkoa	691.259	393.105	95.598	202.556
EAE	2.110.702	897.878	322.546	890.278


Iturria: EUSTAT eta EAS.

Euskaldunen bilakaerari erreparatuz, lurralde guztietan egin dute gora euskaldunek, baina hazkunderik handiena Arabak izan du. Izan ere, Araban, biztanleriaren %4 zen euskalduna 1981ean. Hortaz, 26 puntuko hazkundera izan du berrogei urtean.

Bizkaian, %15,2 ziren euskaldunak 1981ean, eta %37,1 dira 2021ean. Ia 22 puntuko hazkundera izan du Bizkaiak berrogei urtean.

Gipuzkoak zuen euskaldunen ehunekorik handiena alde handiz 1981ean (%40), eta gainerako lurraldeek baino hazkunde txikiagoa izan badu ere (ia 17 puntu), ehuneko handiena izaten jarraitzen du alde handiz (%56,9).

21. grafikoa. Euskaldunen bilakaera lurraldearen arabera. EAE, 1981-2021 (%)



Iturria: EUSTAT eta EAS.


2.3. Hizkuntza-gaitasuna eskualdearen arabera

Arabako eskualderik euskaldunenak Gorbeialdea eta Aiaraldea dira (euskaldunak %47,9 eta %35,1 hurrenez hurren); erdaldunenak, aldiz, Añana eta Arabako Errioxa (euskaldunak %21,9 eta %24,1 hurrenez hurren).

Bizkaia dagokionez, eskualderik euskaldunenak Lea-Artibai eta Busturialdea dira (euskaldunak % 80,1 eta % 71,9 hurrenez hurren); erdaldunenak, aldiz, Enkarterri eta Bilbo Handia (euskaldunak % 30,4 eta % 30,9 hurrenez hurren).

Azkenik, Gipuzkoako eskualderik euskaldunenak Urola Kosta eta Tolosaldea dira (euskaldunak % 77 eta % 73 hurrenez hurren); erdaldunenak, aldiz, Bidasoa Beherea eta Donostialdea (euskaldunak % 45,4 eta % 49,1 hurrenez hurren).

22. grafikoa. Euskaldunak eskualdearen arabera. EAE, 2021 (%)



Iturria: EUSTAT eta EAS.

1981-2021 aldian, EAEko hoge eskualdeak hiru multzotan bana daitezke euren euskaldunen ehunekoaren bilakaeraren arabera.

Lehen multzoa euskaldunen ehunekoak hazkunde handia izan duten hamar eskualdek osatzen dute (20-31 puntu bitartekoa): Arabako eskualde guztiak, Bizkaiko bi eskualde (Bilbo Handia eta Enkarterri), eta Gipuzkoako beste bi eskualde (Donostialdea eta Bidasoa Beherea).

Eskualde hauetan guztietan euskaldunen ehunekoa 22 eta 50 bitartekoa da. Oso ezaugarri desberdineko eskualdeak dira. Eskualde batzuek biztanleak galdu dituzte

(Bilbo Handia eta Arabako Mendialdea); beste batzuek, ordea, biztanle asko irabazi dituzte (Arabako Lautada eta Gorbeialdea Araban eta Bidasoa Beherea Gipuzkoan).

Biztanle kopuruari dagokionez ere aldeak handiak dira, lehen multzo honetan sartzen baitira biztanle gehien (Bilbo Handia, Arabako Lautada eta Donostialdea) eta gutxien (Añana, Arabako Mendialdea eta Gorbeialdea) dituzten eskualdeak. Biztanle gehien izateaz gain, euskaldunen kopururik handiena duten eskualdeak dira, hiru hiriburuak sartzen baitira eskualde horietan.

Bigarren multzoan, euskaldunen ehunekoa ere hazi egin da berrogei urtean, baina neurri txikiagoan (7-17 puntu bitarteko hazkundea). Honako eskualde hauek osatzen dute: Bizkaiko Arratia-Nerbioi, Durangaldea eta Plentzia-Mungia eta Gipuzkoako Debarrena, Debagoiena, Goierri eta Tolosaldea.

Bigarren multzoko eskualde hauetan guztietan euskaldunen ehunekoa 51 eta 73 bitartekoa da. Tamaina ertaineko eskualdeak dira, 25.000-100.000 biztanle inguru dituztenak. 1981-2021 bitartean, horietariko batzuk biztanleak galdu dituzte (Debarrena, Debagoiena eta Goierri); beste batzuk, ostera, irabazi (Plentzia-Mungia, Arratia-Nerbioi, Durangaldea eta Tolosaldea).

Hirugarren multzoa hiru eskualdek osatzen dute. Eskualde horietan euskaldunen ehunekoa ez da askorik hazi, bere horretan mantendu da edo jaitsiera txiki bat izan du. Busturialdea izan ezik, euskaldunen ehunekorik handiena duten hiru eskualde hauek osatzen dute: Lea-Artibai (euskaldunak %80,1), Urola Kosta (euskaldunak %77) eta Busturialdea (euskaldunak %71,9).

Hauek ere tamaina ertaineko eskualdeak dira, 26.000-76.000 biztanle inguru dituztenak.

1981-2021 bitartean, eskualde horiek bilakaera desberdina izan dute biztanleriari dagokionez: Lea Artibaik biztanleak galdu ditu (-1.700 biztanle), baina Urola Kostak biztanle asko irabazi ditu (16.000 biztanle), eta Busturialdeko biztanleria ere hazi egin da, baina neurri txikian (600 biztanle).

14. taula. Euskaldunen bilakaera eskualdearen arabera. EAE, 1981-2021 (%)

		1981	1991	2001	2011	2021
Araba	Aiaraldea	4,4	12,7	21,9	27,8	35,1
	Añana	0,9	2,4	7	16,2	21,9
	Arabako Errioxa	0,9	7	12,9	20,8	24,1
	Arabako Lautada	3,4	7,6	14,9	21,9	29,3
	Gorbeialdea	28	33,1	37,5	41,4	47,9
	Mendialdea	0,6	5,4	11,5	20,0	27,4
Bizkaia	Arratia-Nerbioi	48	53,4	56,4	54,1	59,1
	Bilbo Handia	6,5	10,5	16,5	23,1	30,9
	Busturialdea	71,7	76,1	75,4	72,0	71,9
	Durangaldea	36,6	41,3	47,2	48,5	51,4
	Enkarterri	1	4,2	12,8	21,5	30,4
	Lea-Artibai	81,9	85,8	87,5	81,2	80,1
	Plentzia-Mungia	46,9	49,8	47,3	48,8	53,4
Gipuzkoa	Bidasoa Beherea	25,5	31,2	38,2	40,4	45,4
	Debabarrena	47,6	55,5	60,3	58,1	60,6
	Debagoiena	53,5	60,9	65,7	62,8	64,4
	Donostialdea	26,1	32,4	39,1	43,4	49,1
	Goierri	46,8	55,8	61,8	59,4	63,4
	Tolosaldea	63,1	68,7	72,2	70,7	73,0
	Urola Kosta	73,8	79,2	80,1	76,0	77,0


Iturria: EUSTAT eta EAS.

2.4. Hizkuntza-gaitasuna gune soziolinguistikoaren arabera

Bere garaian, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak lau gune soziolinguistiko ezarri zituen biztanle euskaldunen ehunekoan oinarriturik, baina ehuneko horrek berrogei urteotan izandako hazkundea kontuan izanik, hau da, ia udalerrri guztien euskaldunen ehunekoa %20koa baino handiagoa dela, lehen eta bigarren gune soziolinguistikoak berregitea erabaki du. Honako hau da oraingo banaketa:

- **Lehen gune soziolinguistikoa.** Udalerrri hauetan biztanleriaren %33 baino gutxiago da euskalduna.
- **Bigarren gune soziolinguistikoa.** Udalerrri hauetan biztanleriaren %33 edo gehiago eta %50 baino gutxiago da euskalduna.
- **Hirugarren gune soziolinguistikoa.** Udalerrri hauetan biztanleriaren %50 edo gehiago eta %80 baino gutxiago da euskalduna.
- **Laugarren gune soziolinguistikoa.** Biztanleriaren %80 edo gehiago da euskalduna.

23. grafikoa. Gune soziolinguistikoen bilakaera. 1981-2021 (%)



Lehen guneko soziolinguistikoko bost urte edo gehiagoko 952.722 pertsona bizi dira, EAEko biztanleria osoaren %45,1 hain zuzen. Horietatik, 274.742 euskaldunak dira, hau da, EAEko euskaldun guztien %30,6. Araba eta Bizkaiko 56 udalerri daude lehen guneko soziolinguistikokoan, eta Gipuzkoako bat ere ez. Arabako 32 udalerri osatzen dute guneko hau: udalerri txikiak eta handiak (Gasteiz). Bizkaiko 24 udalerriak edo oso handiak dira (Bilbo, Portugalete, Santurtzi), edo txikiak (Lanestosa, Turtzioz eta Karrantza, esate baterako). Oso biztanleria zahartua dute gehienek, ume gutxi eta heldu eta nagusi asko.

Bigarren guneko soziolinguistikoko EAEko biztanleria osoaren %27,4 bizi da, bost urte edo gehiagoko 578.943 biztanle. Horietatik, 239.780 euskaldunak dira, hau da, EAEko euskaldun guztien %26,7. Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako 42 udalerri osatzen dute, horietariko asko biztanle askoko udalerriak. Arabari dagokionez, hiriburua kenduta, biztanleria gehien dituzten udalerriak sartzen dira guneko honetan (Laudio, Amurrio eta Agurain). Bizkaian ere biztanle askoko hiru udalerri sartzen dira guneko honetan (Getxo, Leioa eta Galdakao). Azkenik, Gipuzkoak ditu biztanleria handieneko hiru udalerriak guneko honetan, hiriburua barne (Donostia, Irun eta Errenteria).

Hirugarren guneko soziolinguistikoko udalerrietan 506.941 pertsona bizi dira, EAEko biztanleria osoaren laurdena (%24). Horietatik, 322.592 dira euskaldunak, hau da, euskaldun guztien herena baino gehiago (%35,9). Bizkaiko eta Gipuzkoako 85 udalerri daude guneko honetan. 20.000 biztanle baino gutxiagoko udalerriak dira, Durango, Zarautz, Arrasate eta Eibar izan ezik. Industria indartsua duten udalerriak dira horietariko asko, tamaina ertainekoak, eta komunikazio-ardatz nagusietan kokatuak.

Laugarren guneko soziolinguistikoko udalerrietan 72.096 pertsona bizi dira, EAEko biztanleria osoaren %3,4. Horietatik, 60.764 dira euskaldunak, hau da, euskaldun guztien %6,8. Bizkaiko eta Gipuzkoako 67 udalerri eta Arabako udalerri bakarra (Aramaio) daude guneko honetan. Udalerri txikiak dira gehienak, 5.000 biztanle baino gutxiagokoak, Azpeitia, Lekeitio eta Mutriku izan ezik.

15. taula. Gune soziolinguistikoen bilakaera. EAE, 1981-2021

	Biztanleak (≥ 5 urte)		Euskaldunak (≥ 5 urte)		Udalerri kopurua	
	1981	2021	1981	2021	1981	2021
1. gunea: euskaldunak $< \% 33$	1.446.798	952.722	130.030	274.742	93	56
2. gunea: euskaldunak $\% 33$-$\% 50$	210.927	578.943	84.168	239.780	26	42
3. gunea: euskaldunak $\% 50$-$\% 80$	236.507	506.941	150.427	322.592	52	85
4. gunea: euskaldunak $\geq \% 80$	74.806	72.096	66.511	60.764	79	68
Guztira	1.969.038	2.110.702	431.136	897.878	250	251

Iturria: EUSTAT eta EAS.

1981ean, biztanleriaren hiru laurdena (%73,5) lehen gune soziolinguistikoan bizi zen, baina 2021ean %45,1 dira. Bilbok eta Gasteizek, hau da, EAEko bi hiribururik populatuenean, lehen gune honetan dira, baina biztanle kopuru handiko udalerri asko lehen gunetik bigarren gunera pasatu dira, hala nola, Gipuzkoako Donostia, Irun eta Errenteria; Bizkaiko Getxo, Leioa eta Galdakao; eta Arabako Laudio eta Amurrio.

Bigarren guneari dagokionez, biztanleria ez ezik euskaldunen kopurua ere asko hazi da: 84.168 euskaldun izatetik 239.780 euskaldun izatera, eta 26 udalerri izatetik 42 udalerri izatera pasatu da.

Hirugarren gunea ere asko hazi da, bai biztanleriari dagokionez, bai euskaldunen kopuruari dagokionez: 150.427 versus 322.592 euskaldun, eta 52 udalerri izatetik 85 udalerri izatera pasatu da. Euskaldun eta udalerri kopuru handiena duen gune soziolinguistikoa da.

Azkenik, laugarren gune soziolinguistikoan udalerrien zein euskaldunen kopurua jaitsi egin da, hirugarren gunera pasatu baitira zenbait udalerri (Markina-Xemein, Zeberio eta Gatika, esate baterako). Duela berrogei urte, 79 udalerri zeuden laugarren gunean, 2021ean baino 11 gehiago. 2021ean 1981ean baino 6.000 euskaldun gutxiago bizi da laugarren gune soziolinguistikoan.


2.5. Hizkuntza-gaitasuna udalerriaren arabera

Hiriburuen hizkuntza-gaitasunari dagokionez, Gasteizen eta Bilboren ehunekoak antzekoak dira. 2021ean, Gasteizen %28,9 dira bost urte edo gehiagoko euskaldunak (68.537), eta Bilbon %29,9 (98.805). Zenbaki absolutuetan, euskaldun gehien duen hiria da Bilbo.

Donostian, biztanleriaren %46 da euskalduna (80.808). Alde handia dago euskaldunen ehunekoetan Donostiaren eta beste bi hiriburuen artean, 16 puntu baino gehiagokoa.

Bestalde, aipatzekoa da Gasteizek eta Arabak alde txikia dutela euskaldunen ehunekoetan. Bilbok eta Donostiak, alde handia dute euren lurraldeekiko. Izan ere, Bilbok ia 8 puntuko aldea du Bizkaiko euskaldunen ehunekoarekiko (%29,9 versus %37,1). Donostiaren eta Gipuzkoaren kasuan aldea are handiagoa da, ia 11 puntukoa (%46 versus %56,9).

24. grafikoa. Hizkuntza-gaitasuna hiriburuaren arabera. EAE, 2021 (%)



Iturria: EUSTAT eta EAS.

1981-2021 aldian, EAEko 159 udalerrik irabaziak izan dituzte euskaldunen ehunekoan; 88k, aldiz, galerak.

Horrela, 46 udalerrik 25 puntu edo gehiagoko irabaziak izan dituzte euskaldunen ehunekoetan. Bizkaiko eta Arabako udalerriak dira, euskaldunen ehuneko txikia zutenak 1981ean. Udalerrri handien artean aipatzekoak dira Arabako udalerririk populatuena (Gasteiz, Laudio eta Amurrio), eta Santurtzi Bizkaian.

Beste 79 udalerrik ere irabaziak izan dituzte euskaldunen ehunekoetan, 10-25 puntu bitartekoak, alegia. Hiru lurraldeetan daude, eta era askotako udalerriak dira. Arabakoak udalerrri txikiak dira, 3.000 biztanle baino gutxiagokoak Oion izan ezik. Bizkaian aipatzekoak dira Bilbo Handiko udalerriak (Bilbo, Getxo, Barakaldo, Portugalete, Basauri, Sestao). Azkenik, Gipuzkoan ere biztanle gehien dituzten udalerriak ditugu, hala nola, Donostia, Irun, Errenteria, Arrasate, Tolosa eta Hernani.


Beste 35 udalerrik euskaldunen ehunekoan 10 puntuz azpiko irabaziak izan dituzte. Nahiko edo oso udalerrri euskaldunak dira: euskaldunen ehunekoa 60 eta 80 ingurukoa dutenak, oro har. Araban, aipatzekoa da Aramaio; Bizkaian, Gernika-Lumo eta Amorebieta-Etxano; eta Gipuzkoan, Zarautz, Eibar, Elgoibar, Hondarribia eta Bergara.

Bukatzeko, azken berrogei urteotan euskaldunen ehunekoan galerak izan dituzte 88 udalerrik. Oso udalerrri euskaldunak ziren, eta orain ere badira, oro har, batez ere, Gipuzkoan (euskaldunak %80-%90 inguru). Bizkaian ez denek, baina zenbait udalerririk galera handia izan dute euskaldunen ehunekoan (2021ean euskaldunak %60-%90 inguru). Horrela, Bizkaiko hiru udalerritan euskaldunen ehunekoaren jaitsiera 20 puntukoa baino handiagoa izan da. Honako hauek dira udalerrri horiek: Fruiz, Maruri-Jatabe eta Zeberio.

2.6. Hizkuntza-gaitasuna adinaren arabera

2021ean, orain dela berrogei urte ez bezala, euskaldunen ehunekorik handiena EAEko umeek, gazteek eta berrogei urte baino gutxiagoko helduek dute.

Hizkuntza-gaitasuna adinaren arabera aztertzerakoan, aipagarria da 5-29 urte bitarteko biztanleriaren %79 euskalduna dela EAEn. Era berean, adin horretako euskaldun hartzailen eta erdaldunen ehunekoa murriztuz doa adinean behera egin ahala, batez ere erdaldunena.

25. grafikoa. Euskaldunak adinaren arabera. EAE, 2021 (%)

Iturria: EUSTAT eta EAS.

Horrezaz gain, 30-39 urte bitartekoen % 47 euskaldunak dira. Euskaldun hartzaileek ere pisu handia dute adin hauetan, batez ere 35-49 urte bitartekoek (%20-%25 artean).

45-64 urte bitartekoen artean, erdaldunek ehunekorik handiena dute, baina euskaldunek zein euskaldun hartzaileek ere pisu handia dute. Joera orokorrari jarraituz, adinean gora egin ahala, euskaldunen eta euskaldun hartzaileen ehunekoa murriztuz doa, eta erdaldunen ehunekoa, aldiz, handituz.

Azkenik, 65 urtetik gorakoaren artean, erdaldunak %60 baino gehiago dira adin-talde guztietan, eta euskaldun hartzaileak gutxituz doaz adinean gora egin ahala. Euskaldunei dagokienez, 85 urtetik gorakoaren euskaldunen ehunekoa handixeagoa da (2 puntu inguruko aldea) aurreko adin-taldeetakoena baino. Gainerako adin-taldeetan euskaldunen ehunekoa %21 edo %22koa da. Dena dela, ehunekoetan dauden aldeak ez dira oso handiak, oro har. Alde handiena euskaldun hartzaileen ehunekoetan dago. Zenbat eta nagusiago, orduan eta euskaldun hartzaile gutxiago.


16. taula. Hizkuntza-gaitasuna adinaren arabera. EAE, 2021

	Biztanleak guztira	Euskaldunak (%)	Euskaldun hartzaileak (%)	Erdaldunak (%)
5-9	102.449	81,0	17,7	1,3
10-14	109.239	90,5	8,4	1,1
15-19	105.549	87,6	8,4	4,0
20-24	100.368	74,8	10,0	15,3
25-29	99.150	60,4	12,0	27,6
30-34	109.565	49,9	15,5	34,6
35-39	134.901	44,6	18,9	36,5
40-44	172.178	38,4	24,0	37,6
45-49	180.511	33,5	25,1	41,4
50-54	171.271	29,0	20,6	50,3
55-59	167.029	27,8	18,1	54,1
60-64	154.439	25,4	15,2	59,3
65-69	129.744	22,4	13,1	64,5
70-74	119.651	22,1	10,3	67,6
75-79	95.923	21,0	8,8	70,2
80-84	69.304	21,5	5,9	72,5
≥ 85	89.431	23,7	5,0	71,3
Guztira	2.110.702	42,5	15,3	42,2

Iturria: EUSTAT eta EAS.

Euskaldunen bilakaerari dagokionez, 1981ean, euskaldunen ehunekorik altuena 65 urtetik gorakoek zuten (%31 baino gehiago) eta, orain ez bezala, adinean behera egin ahala, jaitsi egiten zen euskaldunen ehunekoa: %20 baino gutxiago ziren euskaldunak 44 urte edo gutxiagokoan artean. Dena dela, 5-9 urte bitartekoen adin-taldean euskaldunen ehunekoa gora egiten hasita zegoen (%20,1).

1981etik hona, aldaketa handia gertatu da, gaur egun alderantziz gertatzen baita, gazteen artean dago euskaldunen ehunekorik handiena alde handiz.

26. grafikoa. Euskaldunen bilakaera adinaren arabera. EAE, 1981-2021 (%)

Iturria: EUSTAT eta EAS.

Joera nahiko antzekoa da hiru lurraldeetan, nahiz eta ehunekoak oso desberdinak izan.

Araban, 30 urte baino gutxiago dutenen artean, erdia baino gehiago euskaldunak dira 2021ean. Hortaz, oso gazteak dira arabar euskaldun gehienak. Adinean gora egin ahala, jaitsiz doa euskaldunen ehunekoa. Horrela, 65 urtetik gora, arabarren %7 baino gutxiago dira euskaldunak. Araban euskaldunen ehunekoen arteko aldeak oso handiak dira, gazteenen eta zaharrenen artean.

Araban bezala, Bizkaian, 30 urte baino gutxiago dutenen artean, erdia baino gehiago euskaldunak dira. Bestalde, adinean gora egin ahala, euskaldunen ehunekoak behera egiten du, baina ez Araban beste. Euskaldunen ehunekorik txikiena 79-84 urte bitartekoek dute (%15). Izan ere, 85 urtetik gorako euskaldunen ehunekoak zertxobait handiagoa izaten jarraitzen du.

Azkenik, Gipuzkoan, 45 urte baino gutxiago dutenen artean, erdia baino gehiago euskaldunak dira. Araban eta Bizkaian bezala, zenbat eta gazteago orduan eta handiagoa da euskaldunen ehunekoa. Dena dela, ehunekoak oso desberdinak dira, esate baterako, 45 urtetik gorako euskaldunen artean %40-%46 dira euskaldunak. Bestalde, umeen eta gazteen euskaldunen ehunekoa oso handia da, EAEko handiena (%90etik gorakoa 5 eta 14 urtekoen artean).

17. taula. Euskaldunak lurraldearen eta adinaren arabera. EAE, 2021 (%)

	EAE	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
5-9	81,0	72,1	78,2	89,5
10-14	90,5	85,4	89,1	94,8
15-19	87,6	83,0	85,5	92,7
20-24	74,8	68,9	72,2	81,1
25-29	60,4	50,9	57,5	69,0
30-34	49,9	39,2	46,0	61,4
35-39	44,6	30,4	40,0	59,6
40-44	38,4	24,5	33,0	54,1
45-49	33,5	19,4	27,4	49,9
50-54	29,0	13,8	23,7	44,9
55-59	27,8	13,3	22,0	44,3
60-64	25,4	10,1	19,6	42,2
65-69	22,4	6,4	16,6	38,8
70-74	22,1	4,5	15,2	40,5
75-79	21,0	3,6	14,2	39,3
80-84	21,5	4,1	15,5	38,9
≥ 85	23,7	4,7	17,1	43,0
Guztira	42,5	30,1	37,1	56,9


Iturria: EUSTAT eta EAS.

2.7. Hizkuntza-gaitasuna sexuaren arabera

EAE n euskaldunak sexuaren arabera aztertzerakoan, 0,3 puntuko aldea dago euskaldunen ehunekoan: emakumezkoen %42,7 eta gizonezkoen %42,4 dira euskaldunak.

Lurraldeei dagokienez, ordea, aldea handia da Araban, 2,1 puntuko aldea, hain zuzen. Araban, emakumezkoen %31,1 dira euskaldunak, eta gizonezkoen %29. Bizkaian eta Gipuzkoan, ordea, ez dago alderik emakumezko eta gizonezko euskaldunen ehunekoetan, 0,2 eta 0,1eko aldea, hurrenez hurren.

27. grafikoa. Euskaldunak lurraldearen eta sexuaren arabera. EAE, 2021 (%)




Iturria: EUSTAT eta EAS.

Sexua adinarekin gurutzatzean aldea nabaria da adin-talde batzuetan. Ez dago alde handirik gazteenetan eta zaharrenetan, baina aldea dago 30-64 urte bitarteko emakumezko eta gizonezko euskaldunen ehunekoetan.

30-64 urte bitarteko adin-talde horietan, handiagoa da emakumezko euskaldunen ehunekoa gizonezko euskaldunena baino. Horrela, 2 puntuko aldea dago 30-34 eta 60-64 urte bitarteko emakumezko eta gizonezko euskaldunen ehunekoan. Dena dela, are handiagoa da 40-59 urte bitarteko emakumezko eta gizonezko euskaldunen ehunekoan (5 puntu edo gehiagokoa). Horrela, 40-44 urte bitarteko

emakumezkoen %41,3 eta gizonezkoen %35,5 dira euskaldunak (ia 6 puntuko aldea).

28. grafikoa. 30-64 urte bitarteko euskaldunak sexuaren eta adinaren arabera. EAE, 2021 (%)



Iturria: EUSTAT eta EAS.


Araban dago alderik handiena, bai datu orokorretan (%31,1 versus %29) eta baita adinaren arabera ere.

15-64 urte bitarteko emakumezko eta gizonezkoen euskaldunen ehunekoetan alde handia dago sexua adinarekin gurutzatzean.

Alderik handiena (9 puntuko aldea hain zuzen) 40-44 urte bitarteko emakumezko eta gizonezko arabar euskaldunen ehunekoan dago (emakumezkoen %29,1 euskaldunak versus gizonezkoen %20).

Beste adin-talde batzuetan ere 5-8 puntu bitartekoa da sexuaren arabera aldea euskaldunen ehunekoan, 30-39 eta 45-59 urte dituztenen artean.

Azkenik, 15-29 urte dituztenen artean 3-5 puntu bitarteko aldea dago, eta 2 puntukoa 60-64 urte dituztenen artean.

29. grafikoa. 15-64 urte bitarteko euskaldunak sexuaren eta adinaren arabera. Araba, 2021 (%)


Iturria: EUSTAT eta EAS.

Bizkaian ere aldea nabaria da 30-64 urte bitarteko euskaldunen ehunekoa sexuaren arabera (3 eta 6 puntu artekoa). Esate baterako, 50-54 urte bitartekoen emakumezkoen %26,6 eta gizonezkoen %20,7 dira euskaldunak.


Gipuzkoan aldea txikiagoa da euskaldunen ehunekoa adinaren eta sexuaren arabera: aldea dago 45-59 urte bitartekoen artean (4-5 puntu artekoa), baina ez alde handirik gainerako adin-taldeetan. Horrela, 45-49 urte bitarteko emakumezkoen %56,4 da euskalduna, eta gizonezkoen %51,7.

Bi sexuen arteko alde horren arrazoi nagusia da helduak euskalduntzeko ikastegietan (euskaltegiak, hizkuntza-eskolak, gau-eskolak...) euskalduntzen ari diren eta euskaldundu diren gehienak emakumezkoak direla. HABEko datuei erreparatuz, azken hogeita bost urteotan ikasleen hirutik bi emakumezkoak izan dira eta dira. Horrela, 30-64 urte bitarteko euskaldunen artean euskaldun berri gehiago dira emakumezkoak gizonezkoak baino.

Lurraldeei erreparatuz, eta Araban euskaldun berriek duten pisua kontuan hartuz, gizonezko eta emakumezko euskaldunen ehunekoa aldea handiagoa da Bizkaian eta Gipuzkoan baino.

30. grafikoa. 30-64 urte bitarteko euskaldunak sexuaren eta adinaren arabera. Bizkaia, 2021 (%)

Iturria: EUSTAT eta EAS.

31. grafikoa. 30-64 urte bitarteko euskaldunak sexuaren eta adinaren arabera. Gipuzkoa, 2021 (%)

Iturria: EUSTAT eta EAS.

3. LEHEN HIZKUNTZA

3.1. Lehen hizkuntza Euskal Autonomia Erkidegoan

Lehen hizkuntzari buruz ari garenean, umeak hiru urte bete arte gurasoengandik edo umearekin bizi diren senitartekoengandik jasotako hizkuntzari edo hizkuntzei buruz dihardugu. Lehen hizkuntza, beraz, zuzenean loturik dago hizkuntza-transmisioarekin.

Umeak etxean euskara soilik jaso duenean, umearen lehen hizkuntza euskara dela diogu. Euskaraz gain gaztelania ere jaso badu, lehen hizkuntza euskara eta gaztelania ditu. Aldiz, gaztelania soilik jaso badu, umearen lehen hizkuntza gaztelania da.


Azkenik, euskara edo gaztelania ez den beste hizkuntza bat soilik jaso badu etxean, umearen lehen hizkuntza beste bat dela diogu.

2021eko Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Estatistikaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoan bost urte edo gehiagoko biztanleen %17,7k euskara soilik jaso du etxean (373.829 pertsona).

Era berean, herritarren beste %6,5en lehen hizkuntza ere bada euskara, gaztelaniarekin batera (136.999 pertsona).


Multzorik handiena etxean gaztelania soilik jaso dutenek osatzen dute: hamar lagunetik zazpiren lehen hizkuntza da gaztelania, %70,6rena, hain zuzen ere (1.489.926 pertsona).

Azkenik, %5,2k euskara edo gaztelania ez den beste hizkuntza bat jaso du etxean (109.948 pertsona).

32. grafikoa. Lehen hizkuntza. EAE, 2021 (%)

Iturria: EUSTAT eta EAS.

Azken hogeita hamabost urteetan Euskal Autonomia Erkidegoko herritarren lehen hizkuntzak izan duen bilakaerari erreparatuz gero, ehunekoetan izan diren gorabeherak hiru puntu ingurukoak dira, oro har. 1986tik 2021era bitarte, lehen hizkuntza euskara soilik edo gaztelania soilik dutenen ehunekoak jaitsi egin dira (2,9 eta 3,3 puntu hurrenez hurren). Aldiz, igo egin dira etxean beste hizkuntza bat jaso dutenen ehunekoa (3,4 puntu), eta baita euskararekin batera gaztelania jaso dutenena ere (2,8 puntu).

33. grafikoa. Lehen hizkuntzaren bilakaera. EAE, 1986-2021 (%)

Iturria: EUSTAT eta EAS.

3.2. Lehen hizkuntza lurraldearen arabera


EAEko lurraldeen artean bada alde esanguratsurik herritarren lehen hizkuntzaren inguruko datuetan. Etxean euskara soilik jaso dutenen artean, Gipuzkoak du bai ehunekorik bai zenbaki absoluturik altuena: bost urte edo gehiagoko gipuzkoarren artean, hirutik baten lehen hizkuntza euskara da, %31,1ena, alegia (229.096 pertsona). Bizkaian hamar lagunetik batek jaso du euskara soilik etxean, %11,9k (131.737 pertsona), eta %4,1ek Araban (12.996 pertsona).

Aldeak txikiagoak dira lehen hizkuntza euskara eta gaztelania dutenen artean: %8,5 dira Gipuzkoan, %5,8 Bizkaian eta %4,7 Araban.

Etxean gaztelania soilik jaso dutenen multzoa nagusi da EAEko hiru lurraldeetan, baina ez modu homogeneoan, aldeak handiak direlako: Araban %84,6k jaso du gaztelania soilik etxean, %77,5ek Bizkaian eta erdia pasatxok Gipuzkoan, %53,2k.

Azken urteotako atzerritarren immigrazioa dela-eta, gero eta biztanle gehiagok euskara edo gaztelania ez den beste hizkuntza bat jaso du etxean: Araban %6,6k, Gipuzkoan %5,2k eta Bizkaian %4,8k. Arabaren kasuan lehen hizkuntza beste bat daukatenak gehiago dira euskara soilik daukatenak baino (%6,6 versus %4,1).

34. grafikoa. Lehen hizkuntza lurraldearen arabera. EAE, 2021 (%)



18. taula. Lehen hizkuntza lurraldearen arabera. EAE, 2021


	Guztira	Euskara	Euskara eta gaztelania	Gaztelania	Beste bat
EAE	2.110.702	373.829	136.999	1.489.926	109.948
Araba	316.273	12.996	14.900	267.463	20.914
Bizkaia	1.103.170	131.737	63.592	855.020	52.821
Gipuzkoa	691.259	229.096	58.507	367.443	36.213

Iturria: EUSTAT eta EAS.

Arabaren lehen hizkuntzaren bilakaerari erreparatuz, etxean euskara soilik jaso dutenen ehunekoak gora egin du azken hogeita hamabost urteotan (%2,8 versus %4,1), EAEko hiru lurraldeen artean bakarra da. Halaber, gora egin du etxean euskara eta gaztelania jaso dutenen ehunekoak (%1,5 versus %4,7). Beraz, bi multzoak elkartuko bagenitu, gaur egun lehen hizkuntza euskara edo euskara eta gaztelania dituztenen ehunekoa duela hogeita hamabost urtekoaren bikoitza da (%8,8 versus %4,3).

Era berean, azken hamarkadetako joerari jarraituz, etxean euskara edo gaztelania ez den beste hizkuntza bat jaso dutenen ehunekoa ere haziz doa Araban. Azken hogeita hamabost urteotan 5,4 puntu egin du gora (%1,2 versus %6,6).

Aldiz, lehen hizkuntza gaztelania soilik dutenen ehunekoak 10 puntuko galera izan du Araban 1986 eta 2021 artean (%94,6 versus %84,6).

35. grafikoa. Lehen hizkuntzaren bilakaera. Araba, 1986-2021 (%)


Iturria: EUSTAT eta EAS.

Bizkaian, aldiz, etxean euskara soilik jaso dutenen ehunekoak behera egin du azken hogeita hamabost urteetan (%14 versus %11,9). Bestalde, lehen hizkuntza gisa euskara eta gaztelania batera jaso dutenen ehunekoa bikoiztu egin da (%2,9 versus %5,8). Beraz, bi multzo horiek batuz gero, gaur egun euskara soilik edo euskara eta gaztelania batera jaso dutenen ehunekoa handiagoa da 1986an baino (%17,7 versus %17).

Euskara edo gaztelania ez den beste hizkuntza bat jaso dutenen ehunekoak Bizkaian ere gora egin du, 2,9 puntu, alegia (%1,9 versus %4,8).

Aldiz, gainerako lurraldeetako joera berari jarraituz, etxean gaztelania soilik jaso dutenen ehunekoa jaitsi egin da 1986tik 2021era (%81,2 versus %77,5).

36. grafikoa. Lehen hizkuntzaren bilakaera. Bizkaia, 1986-2021 (%)




Iturria: EUSTAT eta EAS.

Gipuzkoan etxean euskara soilik jaso dutenen ehunekoak 6 puntuko jaitsiera izan du (%39,1 versus %33,1). Aldiz, euskararekin batera gaztelania jaso dutenen ehunekoak 2,5 puntuko hazkundera izan du (%6 versus %8,5). Hortaz, gaur egun euskara soilik edo euskara eta gaztelania batera jaso dutenen ehunekoak 3 puntu egin du behera 1986ko ehunekoarekin alderatuz (%44,6 versus %41,6).

Euskara edo gaztelania ez den beste hizkuntza bat jaso dutenen ehunekoak, gainontzeko lurraldeetan bezala, gora egin du. Gipuzkoaren kasuan, 3,4 puntu (%1,8 versus %5,2).

Aldaketarik txikiena etxean gaztelania soilik jaso dutenen ehunekoak izan du: azken hogeita hamabost urteetan, puntu erdi egin du behera (%53,7 versus %53,2).

37. grafikoa. Lehen hizkuntzaren bilakaera. Gipuzkoa, 1986-2021 (%)

Iturria: EUSTAT eta EAS.

3.3. Lehen hizkuntza eskualdearen arabera

Eskualdeei dagokienez, lehen hizkuntza euskara soilik dutenen ehunekorik handiena Lea-Artibaik dauka: hiru herritarretik bik euskara soilik jaso du etxean (%67). Beste hiru eskualdetan du herritarren erdiak baino gehiagok euskara soilik lehen hizkuntza: Urola Kostan bostetik hiruk (%60,6), Tolosaldean %53,6k eta Busturialdean %53,3k.


Etxean euskararekin batera gaztelania ere jaso dutenen ehunekorik handiena, aldiz, Plentzia-Mungiak dauka: %10,1. Bizkaiko beste bi eskualde ageri dira jarraian: Arratia Nerbioi (%10) eta Busturialdea (%9,1).

Bestalde, Enkarterrin, ia hamar lagunetik bederatzik gaztelania soilik jaso du etxean (%89,3). Beste sei eskualde gehiagotan dute herritarren %80k baino gehiagok gaztelania soilik lehen hizkuntza, eta horietatik bost Araban daude: Arabako Mendialdea (%88,1), Añana (%87,9), Aiaraldea (%85,2), Arabako Lautada (%84,9) eta Arabako Errioxa (%84,8). Seigarrena Bilbo Handia da (%85,2).

Era berean, Arabako Errioxak du lehen hizkuntza euskara edo gaztelania ez den beste hizkuntza bat daukaten herritarren ehunekorik handiena: %8,6. Bigarren handiena Arabako Lautadak du (%7) eta hirugarrena, Lea-Artibaik (%6,9). Bestalde, Arabako lurraldean, Gorbeialdean eta Aiaraldean izan ezik, gainontzeko lau eskualdeetan gehiago dira etxean euskara edo gaztelania ez den beste hizkuntza bat jaso dutenak

euskara soilik jaso dutenak baino: Añanako eskualdean, Arabako Errioxan, Arabako Lautadan eta Mendialdean. Enkarterrin ere gutxiago dira etxean euskara soilik jaso duten herritarrak beste hizkuntza bat jaso dutenak baino.

38. grafikoa. Lehen hizkuntza eskualdearen arabera. EAE, 2021 (%)



Iturria: EUSTAT eta EAS.

Azken hogeita hamabost urteetako bilakaerari dagokionez, bi joera nagusitu dira: alde batetik, gune erdaldunenetako eskualdeetan hazi egin da etxean euskara soilik jaso dutenen ehunekoa. Guztira, sei eskualdetan: Arabako Mendialdean (3,3 puntu), Arabako Errioxan (2,3), Enkarterrin (2), Añanan (1,8), Arabako Lautadan (1,5) eta Aiaraldean (0,7).

Gainontzeko eskualdeetan jaitsi egin da lehen hizkuntza euskara soilik dutenen ehunenekoa. Galerarik handiena Busturialdeak izan du, 17,4 puntukoa (% 70,7 versus % 53,3). Hamar puntutik gorako jaitsiera izan dute ere Arratia-Nerbioik (14,7 puntu), Lea-Artibaik (13,5), Urola Kostak (13,2) eta Plentzia-Mungiak (12,8). Jaitsiera orokorra izan da, kasuak kasu, etxean euskara soilik jaso dutenen artean.

Bestalde, gero eta haur gehiago dira etxean gaztelaniarekin batera jasotzen dutenak euskara, eta horien lehen hizkuntza euskara eta gaztelania dira. 1986tik 2021era bitarteko bilakaerari erreparatuz gero, EAEko eskualde guztietan hazi egin da euskara gaztelaniarekin batera lehen hizkuntza dutenen ehunekoa. Arabaren kasuan, Aiaraldeak izan du igoerarik handiena, 4,1 puntukoa. Bizkaian, berriz, bost eskualdetan hazi da lau puntutik gora: Busturialdean, 5 puntu; Durangaldean eta Arratia-Nerbioin, 4,9 puntu; Plentzia-Mungian, 4,6 puntu eta Lea-Artibain, 4,4 puntu. Azkenik, Gipuzkoan, Urola Kostako eskualdeak izan du hazkunde handiena, 4,6 puntukoa. Gipuzkoako gainerako eskualdeetan 4 puntu baino gutxiago igo da etxean euskara eta gaztelania jaso dutenen ehunekoa.

19. taula. Lehen hizkuntzaren bilakaera eskualdearen arabera. EAE, 1986-2021 (%)

		Euskara		Euskara eta gaztelania	
		1986	2021	1986	2021
Araba	Aiaraldea	4,0	4,7	2,0	6,1
	Añana	0,6	2,4	0,3	3,5
	Arabako Errioxa	0,5	2,8	0,6	3,8
	Arabako Lautada	2,2	3,7	1,3	4,5
	Gorbeialdea	27,0	17,6	5,3	8,0
	Mendialdea	0,4	3,7	0,2	4,2
Bizkaia	Arratia-Nerbioi	47,1	32,4	5,1	10,0
	Bilbo Handia	5,5	5,2	2,7	4,9
	Busturialdea	70,7	53,3	4,1	9,1
	Durangaldea	37,1	27,8	4,1	9,0
	Enkarterri	0,8	2,8	0,4	3,9
	Lea-Artibai	80,5	67,0	2,0	6,4
	Plentzia-Mungia	46,3	23,5	6,5	10,1
Gipuzkoa	Bidasoa Beherea	23,0	19,2	6,7	8,3
	Debabarrena	47,3	38,3	8,1	8,9
	Debagoiena	51,8	44,2	4,9	8,6
	Donostialdea	25,4	22,6	6,2	8,6
	Goierri	45,9	40,0	5,7	9,0
	Tolosaldea	62,7	53,6	6,8	8,4
	Urola Kosta	73,8	60,6	2,6	7,2

3.4. Lehen hizkuntza gune soziolinguistikoaren arabera

Gune soziolinguistikoei dagokionez, alde nabariak daude etxean euskara soilik eta gaztelania soilik jaso dutenen ehunekoen artean, gune euskaldunenetan eta gune erdaldunenetan joerak kontrajarriak baitira.


Hala, lehen hizkuntza euskara soilik dutenen ehunekoa asko igotzen da gune batetik bestera: %3,8 lehen gune soziolinguistikoan, %13,5 bigarreanean, %41,2 hirugarreanean eta %69,3 laugarreanean.

Gune soziolinguistikoa zenbat eta erdaldunagoa izan, are eta handiagoa da etxean gaztelania soilik jaso dutenen ehunekoa. Horrela, %70etik gorakoa da ehunekoa lehen eta bigarren gune soziolinguistikoetan (%86,3 eta %73,9 hurrenez hurren); hirugarren gune soziolinguistikoan, aldiz, txikiagoa da ehunekoa (%44,5) eta are txikiagoa laugarren gune soziolinguistikoan (%19,9).

Etxean euskara eta gaztelania batera jaso dituztenen ehunekoak ezberdinak dira lau gune soziolinguistikoetan: %4,2 lehenengo gunean, %7,8 bigarren gunean, %9,2 hirugarren gunean eta %6,2 laugarren gunean.

Azkenik, etxean euskara edo gaztelania ez den beste hizkuntza bat jaso dutenen ehunekoen artean aldea puntu bat baino txikiagoa da lau gune soziolinguistikoetan: %5,6 lehenengoan, %4,7 bigarreanean, %5,1 hirugarreanean eta %4,6 laugarreanean.

Bestalde, etxean euskara edo gaztelania ez den beste hizkuntza bat jaso dutenak etxean euskara soilik jaso dutenak baino gehiago dira lehen gune soziolinguistikoan (%5,6 versus %3,8).


39. grafikoa. Lehen hizkuntza gune soziolinguistikoaren arabera. EAE, 2021 (%)

Iturria: EUSTAT eta EAS.

Azken hogeita hamabost urteak kontuan hartuz gero, lehen hizkuntzak izandako bilakaera oso antzekoa izan da lau gune soziolinguistikoetan: etxean euskara soilik jaso dutenen ehunekoa jaitsi egin da gune guztietan, eta gaztelania soilik jaso dutenena, berriz, hazi egin da bigarren, hirugarren eta laugarren guneetan. Bakarrik gunerik erdaldunenean jaitsi da lehen hizkuntza gaztelania dutenen ehunekoa, ia puntu bat (%87,1 versus %86,3).

Etxean euskara eta gaztelania jaso dutenen ehunekoa igo egin da lau guneetan, batez ere hirugarrenean eta laugarrenean (hurrenez hurren, 4,1 eta 4,3 puntu).

Azkenik, etxean beste hizkuntza bat jaso dutenen ehunekoa 4 puntu inguru hazi da lau gune soziolinguistikoetan.

40. grafikoa. Lehen hizkuntzaren bilakaera gune soziolinguistikoaren arabera. EAE, 1986-2021 (%)

Iturria: EUSTAT eta EAS.

3.5. Lehen hizkuntza udalerriaren arabera


EAEko lurraldeetako hiriburuei dagokienez, Donostian bost urte edo gehiagoko herritarren %18,7k jaso du euskara soilik etxean, hau da, ia bost herritarretik batek. Bilbon %4,9k du lehen hizkuntza euskara, eta Gasteizen %3,6k.

Euskara gaztelaniarekin batera jaso dutenen ehunekorik handiena ere Donostiak dauka: %8,9. Hau da, Gipuzkoako hiriburuan lau herritarretik batek baino gehiagok (%27,6k) euskara jaso du etxean (soilik edo gaztelaniarekin batera). Bilbon herritarren %4,6k dauka lehen hizkuntza euskara gaztelaniarekin batera, eta Gasteizen, %4,4k.

Gaztelania soilik jaso dutenen ehunekoa ez dago ia alderik Gasteizen eta Bilboren artean: %85k Gasteizen eta %84,7k Bilbon. Donostian, aldiz, ehunekoa txikiagoa da (%67,1).

Gero eta gehiago dira hiru hiriburuetan etxean euskara edo gaztelania ez den beste hizkuntza bat jaso dutenak: %7 Gasteizen, %5,8 Bilbon eta %5,3 Donostian.

41. grafikoa. Lehen hizkuntza hiriburuaren arabera. EAE, 2021 (%)



Iturria: EUSTAT eta EAS.

Bilakaerari dagokionez, azken hogeita hamabost urteetan, igo egin da Gasteizen bai etxean euskara soilik jaso dutenen ehunekoa (%2 versus %3,6), bai euskara eta gaztelania jaso dutenena (%1,3 versus %4,4). Beraz, euskara edo euskara eta gaztelania jaso dutenen portzentajea bikoiztu egin da (%3,4 versus %8). Aldiz, lehen hizkuntza gaztelania soilik jaso dutenen ehunekoa 10 puntu jaitsi da (%95,3 versus %85). Euskara eta gaztelania ez diren beste hizkuntzei dagokienez, Arabako hiriburuan hazi da gehien etxean beste hizkuntza bat jaso dutenen ehunekoa, 5,7 puntu, hain zuzen ere (%1,3 versus %7).

Bilbon ez da aldatu euskara soilik jaso dutenen ehunekoa (4,8 versus 4,9), baina igo egin da etxean euskara gaztelaniarekin batera jaso dutenen ehunekoa 1,4 puntu (%3,2 versus %4,6). Lehen hizkuntza gaztelania soilik jaso dutenen portzentajea,

berriz, 5 puntu jaitsi da (%89,9 versus %84,7) eta euskara edo gaztelania ez den beste hizkuntza bat jaso dutenena 3,7 puntu hazi da (%2,1 versus %5,8).

Donostian aldaketak txikiagoak izan dira azken hogeita hamabost urteetan. Euskara edo euskara eta gaztelania jaso dutenen ehunekoa mantendu egin da: lehen hizkuntza euskara soilik dutenen multzoa 1,2 puntu jaitsi da (%19,9 versus %18,7), eta 1,1 puntu hazi lehen hizkuntza euskara eta gaztelania dutenena (%7,8 versus %8,9). Etxean gaztelania soilik jaso dutenen ehunekoa ere jaitsi egin da Gipuzkoako hiriburuan, baina maila apalagoan: 3 puntu (%70,1 versus %67,1). Azkenik 3 puntu hazi da etxean beste hizkuntza bat jaso dutenen ehunekoa (%2,2 versus %5,3).

20. taula. Lehen hizkuntzaren bilakaera hiriburuaren arabera. EAE, 1986-2021 (%)

	Euskara		Euskara eta gaztelania		Gaztelania		Beste bat	
	1986	2021	1986	2021	1986	2021	1986	2021
Gasteiz	2,1	3,6	1,3	4,4	95,3	85,0	1,3	7,0
Bilbo	4,8	4,9	3,2	4,6	89,9	84,7	2,1	5,8
Donostia	19,9	18,7	7,8	8,9	70,1	67,1	2,2	5,3

Iturria: EUSTAT eta EAS.


Gainontzeko udalerriei dagokienez, ondorengo zortzi udalerrietan etxean euskara soilik jaso dutenen ehunekoa %80 baino handiagoa da gaur egun: Abaltzisketa (%88,3), Errezil (%85,4), Orexa (%88,3), Zerain (%83,6), Aulesti (%82,5), Amoroto (%82,4), Amezketa (%82) eta Baliarrain (%81,4).

Aldiz, etxean euskara soilik jaso dutenen ehunekorik txikiena Arabako udalerri hauek dute: Moreda, Harana, Añana, Kripan eta Navaridas (%1 baino gutxiago guztiek).

Etxean euskara eta gaztelania batera jaso dutenen ehunekorik handiena Orozkok eta Zalduondok dute (%17,1 biek).

Azkenik, euskara edo gaztelania ez den beste hizkuntza bat jaso dutenen ehunekorik handiena sei udalerrik daukate, %10etik gora: Lantziego (%11,7), Ubide (%10,8), Oion (%10,5), Leza (%10,5), Berriatua (%10,4) eta Markina-Xemein (%10,2).

42. grafikoa. Lehen hizkuntza euskara soilik dutenen bilakaera udalerriaren arabera. EAE, 1986-2021 (%)



Iturria: EUSTAT eta EAS.


3.6. Lehen hizkuntza adinaren arabera

EAEko bost urte edo gehiagoko biztanleen artean, etxean euskara soilik jaso dutenen ehunekoa %19tik gorakoa da bai nagusienen, bai gazteenen adin-taldeetan, hau da, 70 urte edo zaharragoen eta 25 urte baino gazteagoen artean. Gainerako adin-taldeetan ehunekoa apalagoa da, eta ehunekorik txikiena 30-39 urte bitartekoek dute: %15 inguru. Kontuan hartu behar da etxean euskara edo gaztelania ez den beste hizkuntza bat jaso dutenen ehunekorik handiena daukala 30-39 urte bitarteko adin-multzoak, eta hain justu ere, atzerrian jaiotako biztanleriaren piramidea aztertuz gero, esanguratsua da adin-multzo horrek duen pisua.

Umeak eta gazteak dira etxean euskara eta gaztelania batera jaso dutenen artean ehunekorik handiena dutenak: 5-19 urte bitartekoen artean %15,5ek du euskara eta gaztelania lehen hizkuntza. Aldiz, adinean gora egin ahala behera egiten du ehunekoak, eta 65 urtetik gorakoen artean 3 puntu baino txikiagoa da ehunekoa.

Bestalde, gaztelania izan arren lehen hizkuntza nagusia adin-talde guztietan, zenbat eta gazteago orduan eta txikiagoa da nagusitasun hori: 50 urtetik gorakoen artean lau lagunetik hiruk baino gehiagok gaztelania du lehen hizkuntza (%75ek edo gehiagok), baina 50 urtetik beherakoen artean adinean behera egin ahala apalduz doa portzentajea, eta 25 urte baino gazteagoen ehunekoa %62 baino txikiagoa da. Era berean, 65 urtetik gorakoen artean ere lehen hizkuntza gaztelania dutenen ehunekoa txikituz doa adinean gora egin ahala; izan ere, adin-tarte zaharrenetan handiagoa da etxean euskara soilik jaso dutenen portzentajea.

EAEn etxean euskara edo gaztelania ez den beste hizkuntza bat jaso dutenen ehunekoa %7tik gorakoa da 20 eta 44 urte bitartekoen artean. Ehuneko hori are handiagoa da 30-34 urte dituztenen artean, %10etik gorakoa baita, bereziki atzerrian jaiotakoen biztanleriak pisua handia daukalako adin-tarte horretan.

43. grafikoa. Lehen hizkuntza adinaren arabera. EAE, 2021 (%)

Iturria: EUSTAT eta EAS.


EAEko lehen hizkuntzaren bilakaerari dagokionez, 1986an etxean euskara soilik jaso zutenen ehunekorik altuena 65 urtetik gorako multzoek zuten (%30 baino gehiago), eta adinean behera egin ahala, ehuneko hori gero eta baxuagoa zen. Hala, lehen hizkuntza euskara soilik zeukatenen ehunekorik txikiena 20 urte baino gazteagoko multzoek zuten (%17tik behera). Euskararen etxeko transmisioa ahulduz zihoan. 2021ean, ordea, 20 urtetik beherakoen artean, bost lagunetik batek baino gehiagok du lehen hizkuntza euskara (%21). Beraz, galera eten egin da eta gaur egun duela hogeita hamabost urte baino gehiago transmititzen zaie euskara umeei.

Ez euskara soilik. Bilakaerari erreparatuta, gero eta ume eta gazte gehiago dira gaztelania euskararekin batera jasotzen dutenak etxean. Ehunekoak alderatuz gero, 40 urtetik beherako multzo guztietan bikoiztu baino gehiago egin da ehunekoa. Gaur egun, 19 urtetik beherakoen artean portzentajea 15,5 puntukoa da, eta duela hogeita hamabost urte 6,2koa zen.

1986an etxean gaztelania soilik jaso zutenen ehunekoa gero eta handiagoa zen, orokorrean, adinean behera egin ahala: 45 urtetik beherakoen artean lau lagunetik hiru baino gehiago ziren lehen hizkuntza gaztelania zutenak. Gaur egun, ordea, gutxiago transmititzen da gaztelania, joera alderantzizkoa baita: adinean behera egin ahala, lehen hizkuntza gaztelania soilik daukatenen ehunekoa txikiagoa da. Ehuneko hori 60,7 puntukoa da 25 urtetik beherakoen artean.

Azkenik, etxean euskara edo gaztelania ez den beste hizkuntza bat jaso zutenen ehunekorik txikiena umeei eta gazteek zuten (%2 baino gutxiago). 2021eko ehunekoarekin alderatuz, 7 puntuko aldea dago adin-talde batzuetan. Horrela, 1986an 25-29 urte bitartekoek %1,6k jaso zuen euskara edo gaztelania ez den beste hizkuntza bat; 2021ean, aldiz, %9,4 dira.

44. grafikoa. Lehen hizkuntzaren bilakaera adinaren arabera. EAE, 1986-2021 (%)




EAEko hiru lurraldeen egoera aztertuko dugu jarraian. Araban, gainontzeko lurraldeetan ez bezala, etxean euskara soilik jaso dutenen ehunekorik handiena multzorik gazteenek dute, bereziki 20 urtez azpikoek: 7 puntu inguru batez beste.

Era berean, adinean behera egin ahala, gero eta handiagoa da etxean euskara eta gaztelania batera jaso dutenen ehunekoa. Are gehiago: 40 urte baino gutxiagokoen artean gehiago dira euskara eta gaztelania batera jaso dutenak euskara soilik jaso dutenak baino.

Gaztelania nagusi izan arren adin-talde guztietan, jaitsi egiten da adinean behera egin ahala.

Bestalde, etxean gaztelania edo euskara ez den beste hizkuntza bat jaso dutenen ehunekoa esanguratsua da 50 urte baino gutxiago dituztenen artean: 25-39 urte dituztenen artean, 11 puntutik gorakoa da.

45. grafikoa. Lehen hizkuntza adinaren arabera. Araba, 2021 (%)




Bizkaian, aldiz, etxean euskara jaso dutenen ehunekorik handiena zaharrenek eta gazteenek dute. Horrela, 85 urte edo gehiagokoen %16,2ren lehen hizkuntza euskara soilik da, eta 5-9 urte bitartekoen %14,6rena. Ehunekorik txikiena 25-49 urte bitartekoei dute: batez beste %10 inguru. Adin-tarte horretan dute, hain justu ere, gainontzeko EAEko lurraldeetan bezala, pisu handiena, lehen hizkuntzari dagokionez, euskara eta gaztelania ez diren gainontzeko hizkuntzek.

Joera orokorrari jarraiki, gero eta gehiago dira euskara eta gaztelania batera jaso dutenak, bereziki gazteenek: %13 baino gehiago dira 20 urte baino gazteagoen artean.

Euskara eta gaztelania ez diren hizkuntzek ere pisu handia dute adin-talde batzuetan, aipatu bezala 30-34 eta 35-39 urte bitartekoen artean bereziki: %9,7 eta %8,9 hurrenez hurren.

46. grafikoa. Lehen hizkuntza adinaren arabera. Bizkaia, 2021 (%)



Iturria: EUSTAT eta EAS.


Gipuzkoari dagokionez, zaharrenen artean da nagusi etxean euskara soilik jaso dutenen multzoa: 85 urte edo gehiagokoen artean %41,8k dauka euskara lehen hizkuntza, eta ehuneko hori jaisten doa adinean behera egin ahala. Horrela, ehunekorik txikiena 35-39 urte bitartekoena da (%28,6). Halere, gazteenen artean berriz doa goraka etxean euskara soilik jaso dutenen ehunekoa, bereziki 5-9 urte bitartekoen artean: %38.

Horrezaz gain, Arabarekin eta Bizkaiarekin alderatuz gero, Gipuzkoan handiagoa da etxean euskara eta gaztelania jaso dutenen ehunekoa, batez ere gazteenen artean: Gipuzkoan 5 eta 24 urte bitartekoen artean, batez beste, %16k baino gehiagok dute lehen hizkuntza euskara eta gaztelania.

EAEko beste bi lurraldeekiko alderaketarekin jarraituz, Gipuzkoan txikiagoa da adin-talde guztietan etxean gaztelania jaso dutenen ehunekoa. Horrela, 35 urtetik beherakoen artean erdiak baino gutxiagok jaso du gaztelania etxean.

Azkenik, etxean euskara edo gaztelania ez den beste hizkuntza bat jaso dutenen ehunekoa nahiko handia da adin-talde batzuetan, 30-34 eta 35-39 urte bitartekoen artean bereziki: %11,2 eta %10 hurrenez hurren.

47. grafikoa. Lehen hizkuntza adinaren arabera. Gipuzkoa, 2021 (%)




3.7. Lehen hizkuntza sexuaren arabera

EAEn, lehen hizkuntza eta sexua gurutzatzean, ikusten da ez dagoela alderik emakumezkoen eta gizonezkoen artean. Ia bera da euskara soilik jaso dutenen ehunekoa emakumezkoen zein gizonezkoen artean (%17,7 versus %17,8) eta baita euskara eta gaztelania batera jaso dutenena ere (%6,4 versus %6,6). Gauza bera esan daiteke gaztelania soilik jaso dutenen ehunekoaz (%70,8 versus %70,4) eta beste hizkuntza bat jaso dutenen ehunekoaz (%5,2 versus %5,2).

Gainera, gauza bera gertatzen da hiru lurraldeetan, ez baitago alderik emakumezkoen eta gizonezkoen ehunekoetan.


48. grafikoa. Lehen hizkuntza sexuaren eta lurraldearen arabera. EAE, 2021 (%)



Iturria: EUSTAT eta EAS.


Horrezaz gain, lehen hizkuntza sexuarekin eta adinarekin gurutzatzean ere, ikusten da ez dagoela alderik oro har emakumezkoen eta gizonezkoen artean.

Alderik handiena, txikia bada ere, beste hizkuntza bat jaso dutenen artean ikusten da 25-34 urte bitarteko multzoetan: adin tarte horretan emakumezkoen %10,7k jaso du euskara edo gaztelania ez den beste hizkuntza bat etxean, eta gizonezkoen %9,6k.

49. grafikoa. Lehen hizkuntza adinaren eta sexuaren arabera. EAE, 2021 (%)

Iturria: EUSTAT eta EAS.

Azken hogeita hamabost urteetako bilakaerari dagokionez ere, ez dago alde esanguratsurik oro har emakumezkoen eta gizonezkoen artean.

50. grafikoa. Lehen hizkuntzaren bilakaera adinaren eta sexuaren arabera. EAE, 1986-2021 (%)

Iturria: EUSTAT eta EAS.

3.8. Euskaldunak lehen hizkuntzaren arabera (BILA indizea)

Atal honetan, lehen hizkuntza eta hizkuntza-gaitasuna aldagaiak gurutzatuko ditugu, euskaldunen hizkuntza-ibilbidea aztertu ahal izateko. Emaitzari BILA indizea deitu diogu.


Euskaldunak hiru multzotan banatu ditugu beren lehen hizkuntzaren arabera:

- **Euskaldun zaharrak:** euskara soilik jaso dute gurasoengandik edo etxean bizi diren senitartekoengandik hiru urte bete arte.
- **Jatorrizko elebidunak:** euskara eta gaztelania jaso dituzte gurasoengandik edo etxean bizi diren senitartekoengandik hiru urte bete arte.
- **Euskaldun berriak:** ez dute euskararik jaso etxean gurasoengandik edo etxean bizi diren senitartekoengandik. Etxetik kanpo ikasi dute euskara, eskolan edo euskaltegian batik bat.

2021eko Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Estatistikaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoan bost urte edo gehiagoko euskaldunen %37k (332.302 pertsona) euskara hutsik jaso du etxean, hau da, euskaldun zaharra da.

Euskaldunen %12,6k (113.410 pertsona) euskara eta gaztelania jaso ditu, eta jatorrizko elebiduna da.

51. grafikoa. Euskaldunak lehen hizkuntzaren arabera. EAE, 2021 (%)



Iturria: EUSTAT eta EAS.

Azkenik, etxean gaztelania edo beste hizkuntza bat jaso duten euskaldunak erdia pasatxo dira, %50,4 (452.166 pertsona).

Gaur egun, beraz, euskaldun gehiago daude euskara bigarren hizkuntza dutenak, euskara lehen hizkuntza dutenak baino.


Euskaldunen multzoa asko aldatu da azken hogeita hamabost urteotan. Izan ere, gaur egun ez bezala, 1986an euskaldun zaharren ehunekoa euskaldun berriena baino askoz handiagoa zen. Hain zuzen ere, duela hogeita hamabost urte euskaldunen %76,8 ziren euskaldun zaharrak eta %14,4

euskaldun berriak. Gaur egun, ordea, euskaldun gehienak euskaldun berriak dira (%50,4) eta euskaldun zaharrak, herena pasatxo (%37).

Azken hamarkadetan asko igo da euskaldunen kopurua EAEn. Hizkuntza-ereduen ezarpena funtsezkoa izan da haurrak eta gazteak euskalduntzeko. Hemen jaiotako zein kanpotik etorritako guraso erdaldunen seme-alaba asko eskolan euskaldundu dira azken urteetan eta gaur egun ere ari dira. Helduen euskalduntzeak ere indartu du euskararen biziberritze prozesua. Horren eraginez, euskaldunen tipologia aldatuz joan da: EAEn gero eta euskaldun gehiago dago eta horien artean gero eta gehiago dira euskaldun berriak, hau da, etxetik kanpo ikasi dutenak euskara. Horren eraginez, euskaldunen tipologia aldatuz joan da: EAEn gero eta euskaldun gehiago dago eta horien artean gero eta gehiago dira euskaldun berriak, hau da, etxetik kanpo ikasi dutenak euskara.


Jatorrizko elebidunak diren euskaldunen ehunekoa ere hazi egin da azken hogeita hamabost urteetan, ia lau puntu (%8,8 versus %12,6).

52. grafikoa. Euskaldunen bilakaera lehen hizkuntzaren arabera. EAE, 1986-2021 (%)



Iturria: EUSTAT eta EAS.

Datuak EAEko lurraldeen arabera aztertuz gero, aldeak esanguratsuak dira. Araban lau euskaldunetik hiru baino gehiago euskaldun berria da (%77,2) eta Bizkaian bostetik hiru (%60,1). Gipuzkoan, aldiz, euskaldun gehienak, erdia pasatxo, euskaldun zaharrak dira (%53,4). Jatorrizko elebidunak diren euskaldunen portzentajea oso antzekoa da hiru lurraldeetan: %12,3 Araban, %12,5 Bizkaian eta %12,9 Gipuzkoan.

53. grafikoa. Euskaldunak lehen hizkuntzaren eta lurraldearen arabera. EAE, 2021 (%)


Iturria: EUSTAT eta EAS.

Duela hogeita hamabost urte ere, Araban euskaldun gehienak euskaldun berriak ziren (%53); baina bai Bizkaian, bai Gipuzkoan, euskaldun berrien ehunekoa oraingoarekin alderatuz gero, txikia zen (%19,9 Bizkaian eta %8,3 Gipuzkoan).

Araban hiru euskaldunetik bat pasatxo zen euskaldun zaharra (%35), eta Bizkaian eta Gipuzkoan gehiago handia (%71,6 eta %82,9 hurrenez hurren).

Jatorrizko elebidunei dagokienez, Araban ez da ia aldatu (%12 versus %12,3). Bizkaian 3,9 puntu igo da (%8,6 versus %12,5) eta Gipuzkoan 4,1 puntu (%8,8 versus %12,9).

54. grafikoa. Euskaldunen bilakaera lehen hizkuntzaren eta lurraldearen arabera. EAE, 1986-2021 (%)



Iturria: EUSTAT eta EAS.


Arabako eskualde guztietan, Gorbeialdean izan ezik, lau euskaldunetik hiru baino gehiago dira euskaldun berriak. Gorbeialdean, euskaldunen erdia inguru da euskaldun berria (%52,2).

Gipuzkoan, ordea, alderantziz gertatzen da: euskaldunen artean euskaldun zaharrak dira nagusi eskualde ia guztietan, salbu eta Bidasoa Beherean (%35,6) eta Donostialdean (%40,5). Bi eskualde horietan, euskaldun berriak ia euskaldunen erdiak dira (%49,2 eta %44,7 hurrenez hurren); gainerako eskualdeetan, etxetik kanpo euskaldundu diren euskaldunen ehunekoa 30 puntu baino txikiagoa da.

Bizkaia dagokionez, Bilbo Handian eta Enkarterrin nagusi dira euskaldun berriak (%75,5 eta %83,3 hurrenez hurren). Bizkaiko gainerako eskualdeetan, aldiz, euskaldun zaharren multzoak du pisurik handiena. Hain zuzen ere, Bizkaian dago etxean euskara soilik jaso duten euskaldunen ehunekorik handiena duen eskualdea: Lea-Artibain euskaldunen %84,7 da euskaldun zaharra.

Euskaldun zaharrek eta euskaldun berriekin batera, jatorrizko elebidunek osatzen dute euskaldunen hirugarren multzoa. Jatorrizko elebidunek euskara eta gaztelania jaso dute etxean, eta euskaldunen %15 edo gutxiago dira EAEko eskualde guztietan, Plentzia-Mungian, Bidasoa Beherean eta Arratia-Nerbioin izan ezik.

55. grafikoa. Euskaldunak lehen hizkuntzaren eta eskualdearen arabera. EAE, 2021 (%)



Iturria: EUSTAT eta EAS.

Azken hogeita hamabost urteetako bilakaerari dagokionez, joera bera errepikatu da eskualde guztietan: euskaldunen artean gero eta pisu gutxiago dute euskaldun zaharrek, baina jatorrizko elebidunak eta batez ere euskaldun berriak haziz doaz hamarkadaz hamarkada.

Plentzia-Mungia eskualdean jaitsi da gehien euskaldun zaharren ehunekoa, 47,3 puntuko jaitsiera, alegia (%85,5 versus %38,2); Gorbeialdean 46,9 puntu (%80,5 versus %33,6), eta Durangaldean 40,9 puntu (%88,5 versus %47,6). Kontuan hartu behar da aldaketa demografikoek eragin zuzena daukatela lehen hizkuntza

bezalako aldagaietan; esaterako, Plentzia-Mungia eskualdeak 2001etik 2021era bitarte %29ko hazkundea izan du populazioan (45.652 pertsona versus 58.922), eta Gorbeialdeak %33,4koa (6.814 pertsona versus 9.093). Biztanleen ehunekoetan gehien hazi diren bi eskualdeak dira Añanako eskualdearekin batera.

21. taula. Euskaldunen bilakaera lehen hizkuntzaren eta eskualdearen arabera. EAE, 1986-2021 (%)

		Euskaldun zaharrak		Jatorrizko elebidunak		Euskaldun berriak	
		1986	2021	1986	2021	1986	2021
Araba	Aiaraldea	35,5	9,7	11,6	14,1	52,8	76,2
	Añana	42,2	6,3	11,1	11,8	46,7	81,9
	Arabako Errioxa	14,2	7,8	16,4	10,6	69,5	81,6
	Arabako Lautada	28,9	9,5	12,6	12,0	58,6	78,5
	Gorbeialdea	80,5	33,6	8,9	14,2	10,7	52,2
	Mendialdea	13,0	10,9	3,9	12,5	83,1	76,6
Bizkaia	Arratia-Nerbioi	86,9	50,9	6,5	15,0	6,5	34,1
	Bilbo Handia	45,7	12,3	14,2	12,2	40,2	75,5
	Busturialdea	91,7	69,6	3,7	11,0	4,5	19,4
	Durangaldea	88,5	47,6	5,7	14,6	5,8	37,8
	Enkarterri	30,2	6,3	6,7	10,4	63,1	83,3
	Lea-Artibai	93,8	80,6	1,8	7,2	4,4	12,2
	Plentzia-Mungia	85,5	38,2	7,4	16,1	7,2	45,7
Gipuzkoa	Bidasoa Beherea	72,8	35,6	16,5	15,3	10,8	49,2
	Debabarrena	83,9	58,3	10,4	12,8	5,7	29,0
	Debagoiena	87,0	63,7	5,9	11,7	7,1	24,5
	Donostialdea	74,9	40,5	12,2	14,8	12,9	44,7
	Goierri	84,7	59,3	7,7	12,8	7,6	27,9
	Tolosaldea	89,3	69,9	6,5	10,4	4,3	19,7
	Urola Kosta	93,2	75,5	2,6	8,5	4,2	16,0

Iturria: EUSTAT eta EAS.

Euskaldun berriak 40 puntu inguru igo dira ondorengo hiru eskualdeetan: Gorbeialdean 41,5 puntu (%10,7 versus %52,2); Plentzia-Mungian 38,6 puntu (%7,2 versus %45,7) eta Bidasoa Beherean 38,4 puntu (%10,8 versus %49,2).

Jatorrizko elebidunen hazkundera ere handia izan da eskualde guztietan. Hazkunderik handiena lau eskualde hauetan izan da: Durangaldea, Plentzia-Mungia, Arabako Mendialdea eta Arratia-Nerbioi.


BILA indizea gune soziolinguistikoaren arabera aztertuz gero, aldeak nabarmenak dira gune euskaldunen eta gune erdaldunen artean.

Lehenengo eta bigarren gune soziolinguistikoetan, euskaldun gehienak euskaldun berriak dira (% 79,2 eta % 57,7 hurrenez hurren). Bi gune horietan, euskaldun zaharrak euskaldunen % 9,5 eta % 26,8 dira, hurrenez hurren.

Hirugarren eta laugarren gune soziolinguistikoetan alderantziz gertatzen da. Laugarren gune soziolinguistikoan euskaldun zaharrak euskaldun guztien % 80,5 dira, eta hirugarren gunean % 59,9. Bi gune horietan, euskaldun berriak % 12,6 eta % 27,4 dira, hurrenez hurren.

Jatorrizko elebidunen ehunekoa honakoa da lehenengo, bigarren eta hirugarren gune soziolinguistikoetan: % 11,3, % 15,5 eta % 12,7 hurrenez hurren, eta txikiagoa da laugarren gune soziolinguistikoan (% 6,8).

56. grafikoa. Euskaldunak lehen hizkuntzaren eta gune soziolinguistikoaren arabera. EAE, 2021 (%)



Iturria: EUSTAT eta EAS.


Azken hogeita hamabost urteetako bilakaerari dagokionez, euskaldunen profila asko aldatu da eremu soziolinguistiko guztietan. Euskaldun zaharrek pisua galdu dute eta euskaldun berriek irabazi. 1986an eremu erdaldunenean ere euskaldunen erdiak

baino gehiago euskaldun zaharrak ziren; ehuneko hori ia 45 puntu jaitsi da lehenengo eremu soziolinguistikoan (%54,2 versus %9,5). Era berean, 1986an euskaldunen artean %80tik gora euskaldun zaharrak ziren bai bigarren, bai hirugarren, bai laugarren gune soziolinguistikoetan (hurrenez hurren, %83,2, %89 eta %95,7). 2021ean euskaldun zaharren ehunekoa laugarren gune soziolinguistikoan da soilik 80 puntutik gorakoa (%80,5). Gaur egun hirugarren gune soziolinguistikoan bost euskaldunetik hiru dira euskaldun zaharrak (%59,9), eta ehunekoa txikiagoa da zenbat eta gune erdaldunagoa izan: bigarren gunean %28,2 eta lehenengo gunean %9,9.

Euskaldun berriek, bestalde, pisua irabazi dute euskaldunen artean gune soziolinguistiko guztietan: lehenengo gunean ia 50 puntu hazi da euskaldun berrien ehunekoa (%30,9 versus %79,2); bigarrenean ere beste hainbeste (%7,6 versus %57,7); hirugarrenean 20 puntutik gora (%5,6 versus %27,4) eta laugarrenean, modu apalagoan, 10 puntu (%2,6 versus %12,6).

Jatorrizko elebidunek ere gero eta pisu handiagoa daukate euskaldunen artean. Izan ere, etxean euskara eta gaztelania jaso duten euskaldunen ehunekoa hazi egin da gune soziolinguistiko guztietan, lehenengoan izan ezik. Gune erdaldunenean 3,6 puntu jaitsi da jatorrizko elebidunen ehunekoa (%14,9 versus %11,3); gainontzekoetan igo egin da: bigarren gunean 6,3 puntu (%9,2 versus %15,5), hirugarrenean 7,3 puntu (%5,4 versus %12,7) eta gune euskaldunenean 5,2 puntu (%1,6 versus %6,8).

57. grafikoa. Euskaldunen bilakaera lehen hizkuntzaren eta gune soziolinguistikoaren arabera. EAE, 1986-2021 (%)




EAEko hiru lurraldeetako hiriburuei dagokienez, bai Gasteizen eta baita Bilbon ere, lau euskaldunetik hiru baino gehiago euskaldun berriak dira (%78,9 eta %76,5 hurrenez hurren). Donostiako euskaldunen artean, ordea, euskaldun berrien ehunekoa ez da erdira iristen (%49,4).

Gasteizen eta Bilbon hamar euskaldunetik bat da gutxi gorabehera euskaldun zaharra (%9,3 eta %11,7 hurrenez hurren), eta Donostian, berriz, hirutik bat pasatxo (%34,5).

Jatorrizko elebidunen artean aldeak txikiagoak dira: bai Gasteizen, bai Bilbon, euskaldunen %11,8k ditu euskara eta gaztelania lehen hizkuntza; Donostian, %16,1ek.

58. grafikoa. Euskaldunak lehen hizkuntzaren eta hiriburuaren arabera. EAE, 2021 (%)



Iturria: EUSTAT eta EAS.

EAEko hiru lurraldeetako joera berari jarraiki, hiriburuetako bilakaera ere antzekoa da: euskaldunen artean gero eta pisu handiagoa dute euskaldun berriek eta gero eta txikiagoa euskaldun zaharrek.

22. taula. Euskaldunen bilakaera lehen hizkuntzaren eta hiriburuaren arabera. EAE, 1986-2021 (%)

	Euskaldun zaharrak		Jatorrizko elebidunak		Euskaldun berriak	
	1986	2021	1986	2021	1986	2021
Gasteiz	28,7	9,3	12,4	11,8	58,9	78,9
Bilbo	38,4	11,7	17,6	11,8	44,0	76,5
Donostia	64,3	34,5	17,4	16,1	18,3	49,4

Iturria: EUSTAT eta EAS.

EAEko 62 udalerritan, euskaldunen %75 edo gehiago euskaldun zaharrak dira. EAEko hiru lurraldeetako eremu euskaldunenean kokatutako udalerriak dira, eta oro har udalerri txikiak. Izan ere, Azpeitiak eta Azkoitiak baino ez dituzte 10.000 biztanle baino gehiago, eta beste lau udalerrik soilik daukate 5.000 biztanle baino gehiago. Honako hauek dira: Mutriku, Markina-Xemein, Lekeitio eta Ondarroa. Udalerrri hauetan, oro har, euskaldun berriak ez dira %10era iristen eta jatorrizko elebidunen pisua are txikiagoa da.

Beste 78 udalerritan, euskaldun zaharren ehunekoa %50 eta %75 artekoa da. Udalerrri hauek ere gune euskaldunean kokatuta daude, eta biztanleei dagokienez, asko eta asko udalerri txikiak dira, eta dozena bat ertainak. Honako udalerri hauek dituzte 10.000 eta 25.000 biztanle artean: Zarautz, Arrasate, Hernani, Amorebieta-Etxano, Hondarribia, Beasain, Elgoibar, Tolosa, Bergara, Oñati, Bermeo eta Gernika-Lumo. Multzo honetan, euskaldun berriak %37 baino gutxiago dira eta jatorrizko elebidunak, batez beste, %12,2.

Hirugarren multzoan, 18 udalerritan, euskaldun zaharren pisua aurreko multzoetakoa baino txikiagoa da: lehen hizkuntza euskara soilik dutenak %33 eta %50 bitarte dira. Udalerrri gutxi osatu arren multzo hau, EAEko bost euskaldunetik bat bertan bizi da. Izan ere, multzo honetan Donostia dago eta beste bost udalerrik 15.000 eta 40.000 biztanle artean dituzte (Mungia, Lasarte-Oria, Eibar, Durango eta Errearteria). Aurreko multzoekin alderatuz gero, jatorrizko elebidunen ehunekoa handiagoa da oro har, batez beste %15,7. Bestalde, multzo honetako euskaldunen heren bat baino gehiago euskaldun berria da. Donostian, esaterako, euskaldunen erdiak dira (%49,4) eta Errearterian erdia pasatxo (%52,1).

Laugarren multzoan kokatzen diren udalerrietan, euskaldun zaharrek pisu txikia dute eta euskaldun berriek, aldiz, handia. Multzo hau 93 udalerrik osatzen dute eta EAEko euskaldun guztien ia erdia (%45,2) bertan bizi da. Izan ere, Donostia salbu,

biztanle gehien dituzten udalerriak daude: Bilbo, Gasteiz, Barakaldo, Getxo, Irun, Santurtzi eta Portugalete. Multzo honetan, euskaldunen dentsitate handiagoa dute udalerrietan euskaldun zaharrak %25 eta %33 inguru dira (besteak beste, Pasaia, Urduliz, Galdakao, Irun, Sondika). Aldiz, euskaldunen dentsitatea txikitu ahala, euskaldun zaharren pisua gero eta txikiagoa da eta euskaldun berriena handiagoa. Gune erdaldunean kokatutako udalerri askotan euskaldun berriak %80tik gora dira. Multzo honetan, jatorrizko elebidunak, batez beste, %12,6 dira.

3.9. Euskaldunak lehen hizkuntzaren, adinaren eta sexuaren arabera

Euskaldunak lehen hizkuntzaren eta adinaren arabera aztertuz gero, azpimarratzekoa da desberdintasun handiak daudela gazteenen eta nagusien artean. Izan ere, nagusien artean dago euskaldun zaharren ehunekorik handiena, eta adinak behera egin ahala behera egiten du euskaldun zaharren ehunekoak. Euskaldun berrien eta jatorrizko elebidunen kasuan, kontrakoa gertatzen da. Hau da, nagusien artean dago euskaldun berrien eta jatorrizko elebidunen ehunekorik txikiena, eta adinak behera egin ahala gora egiten du euskaldun berrien eta jatorrizko elebidunen ehunekoak.

EAE-n, 65 urte edo gehiagoko nagusien artean, lau euskaldunetik hiru baino gehiago euskaldun zaharrak dira. Adin horretako pertsonen artean, berriz, euskaldun berrien ehunekoa %15 baino txikiagoa da eta jatorrizko elebidunena %10 baino txikiagoa.

30 urtetik beherako gazte euskaldunen artean, euskaldun zaharrak hirutik bat baino gutxiago dira, eta erdia baino gehiago euskaldun berriak. Jatorrizko elebidunak %15 inguru dira.

Euskaldun zaharrak nagusi dira 45 urtetik gorako euskaldunen artean, eta euskaldun berriak 40 urtetik beherako euskaldunen artean. Jatorrizko elebidunak sei euskaldunetik bat baino gutxiago dira adin-talde guztietan.


Euskaldun nagusien eta gazteen arteko joera horiek EAEko hiru lurraldeetan ikus daitezke, baina lurralde batetik bestera aldeak daude talde bateko eta besteko proportzioetan. Gipuzkoako euskaldun zaharren ehunekoa beste bi lurraldeetako baino handiagoa da adin-talde guztietan. Bizkaian eta, bereziki, Araban, aldiz, euskaldun zaharren ehunekoa EAEko batez bestekoa baino txikiagoa da adin-talde guztietan.

Euskaldun berriekin kontrakoa gertatzen da. Bizkaian eta, bereziki, Araban euskaldun berrien ehunekoa EAEkoaren batez bestekoa baino handiagoa da adin-talde guztietan. Araban, esaterako, euskaldun berriak EAEko batez bestekoaren

halako bi dira 45 urtetik gorakoen artean. Gipuzkoan, euskaldun berrien ehunekoa EAEko batez bestekoren azpitik dago adin-talde guztietan, eta 15 urtetik beherako gazteen artean nagusi badira ere, adin horretako gazteen erdia baino gutxiago dira.

Jatorrizko elebidunei dagokienez, EAEko hiru lurraldeen artean ez dago alde esanguratsurik adinari erreparatzen badiogu. Gipuzkoan, jatorrizko elebidunen ehunekoak Araban eta Bizkaian baino zertxobait handiagoak dira 25 urtetik beherakoen artean; eta Araban, aldiz, Bizkaian eta Gipuzkoan baino handiagoak 70 urtetik gorakoen artean.

59. grafikoa. Euskaldunak lehen hizkuntzaren eta adinaren arabera. EAE, 2021 (%)




Iturria: EUSTAT eta EAS.

Adinaren arabera bilakaerari dagokionez, azken hogeita hamabost urteotan, euskaldun zaharren ehunekoak behera egin du adin-talde guztietan. Jaitsiera hori handiagoa izan da adinak behera egin ahala. 1986an euskaldun zaharrak nagusi ziren adin-talde guztietan, baita gazteenen artean ere, nahiz eta alde txikia zuten euskaldun berriekiko.

Jatorrizko elebidunen ehunekoa, aldiz, 1986an baino handiagoa da gaur egun adin-talde guztietan, 15 urtetik beherako gazteen artean izan ezik.

Euskaldun berriei dagokienez, are handiagoa da aldea, gehiago baitira gaur egun 1986an baino adin-talde guztietan; batez ere, 50 urtetik beherakoen artean.

60. grafikoa. Euskaldunen bilakaera lehen hizkuntzaren eta adinaren arabera. EAE, 1986-2021 (%)

Iturria: EUSTAT eta EAS.

Euskaldunak lehen hizkuntzaren eta sexuaren arabera aztertuz gero, euskaldun zaharren eta jatorrizko elebidunen artean ez dago alde esanguratsurik emakumezkoen eta gizonezkoen ehunekoan. Euskaldun berrien artean, berriz, emakumezkoen ehunekoa gizonezkoena baino handiagoa da, bereziki 40-64 urte bitartekoaren artean (%38 versus %42,4). Horretan badauka eragina ikastegietan euskara ikasten ari diren eta euskara ikasi duten gehienak emakumeak izatea.

23. taula. Euskaldunak lehen hizkuntzaren, adinaren eta sexuaren arabera. EAE, 2021 (%)

	Euskaldun zaharrak		Jatorrizko elebidunak		Euskaldun berriak	
	Emakumezkoa	Gizonezkoa	Emakumezkoa	Gizonezkoa	Emakumezkoa	Gizonezkoa
05-24	38.844	41.573	27.483	28.767	103.891	108.817
25-44	36.233	36.596	15.981	15.663	72.301	64.078
45-64	48.891	47.175	9.576	8.366	47.963	33.981
≥ 65	47.313	35.677	4.476	3.098	12.011	9.124
Guztira	171.281	161.021	57.516	55.894	236.166	216.000

	Euskaldun zaharrak (%)		Jatorrizko elebidunak (%)		Euskaldun berriak (%)	
	Emakumezkoa	Gizonezkoa	Emakumezkoa	Gizonezkoa	Emakumezkoa	Gizonezkoa
05-24	22,8	23,2	16,1	16,1	61,0	60,7
25-44	29,1	31,5	12,8	13,5	58,1	55,1
45-64	45,9	52,7	9,0	9,3	45,1	38,0
≥ 65	74,2	74,5	7,0	6,5	18,8	19,0
Guztira	36,8	37,2	12,4	12,9	50,8	49,9

Iturria: EUSTAT eta EAS.

4. ETXEAN ERABILTZEN DEN HIZKUNTZA

4.1. Etxean erabiltzen den hizkuntza Euskal Autonomia Erkidegoan

2021eko Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Estatistikaren arabera, bost urte edo gehiagoko 2.110.702 pertsona bizi dira Euskal Autonomia Erkidegoan. Horietatik, %12,9k euskara erabiltzen du etxean (271.482 pertsona), eta %11,4k euskara eta gaztelania (240.158 pertsona).


Etxean gaztelania erabiltzen dutenak %72,5 dira (1.530.023 pertsona), eta euskara edo gaztelania ez den beste hizkuntza bat erabiltzen dutenak %3,2 (68.139 pertsona).

Azken hogeita hamar urteotan, puntu bat egin du behera etxean euskara hutsean mintzatzen direnen ehunekoak. 1991n, %13,8 ziren eta 2021ean %12,9. Kopuru absolutuetan, 7.500 pertsona gutxiago dira.

Etxean euskara eta gaztelania erabiltzen dutenen ehunekoak, aldiz, gora egin du 1991 eta 2021 bitartean (3,4 puntu). 1991n %8 ziren etxean hizkuntza biak erabiltzen zituztenak eta 2021ean %11,4. Kopuru absolutuetan, 78.800 pertsona gehiago dira.

Etxean gaztelaniaz mintzatzen direnak 1991n baino gutxiago dira 2021ean: 5,1 puntu eta 33.200 pertsona gutxiago (1991n %77,6 ziren eta 2021ean %72,5).


61. grafikoa. Etxean erabiltzen den hizkuntza. EAE, 2021 (%)



Iturria: EUSTAT eta EAS.

Azkenik, etxean euskara edo gaztelania ez den beste hizkuntza bat erabiltzen dutenen ehunekoak eta kopuruak gora egiten jarraitzen du: azken 30 urteotan 2,7 puntu eta 57.700 pertsona gehiago; 1991n %0,5 ziren eta 2021ean %3,2 dira.

62. grafikoa. Etxean erabiltzen den hizkuntzaren bilakaera. EAE, 1991-2021 (%)




Iturria: EUSTAT eta EAS.

4.2. Etxean erabiltzen den hizkuntza lurraldearen arabera

Etxeke erabileran alde esanguratsuak daude EAEko hiru lurraldeen artean. Araban %2,5ek erabiltzen du euskara etxean eta %6,8k euskara eta gaztelania. Bizkaian %8,2k erabiltzen du euskara etxean eta %9,6k euskara eta gaztelania. Gipuzkoa da, alde handiz, etxean euskararen erabilerarik handiena duen lurraldea. Izan ere, gipuzkoarren laurdenak (%25) euskara erabiltzen du etxean eta %16,3k euskara eta gaztelania.

Hiru lurraldeetako etxeetan gehien erabiltzen den hizkuntza gaztelania da: Araban %85,9, Bizkaian %79,4 eta Gipuzkoan %55,5.

Euskara edo gaztelania ez den beste hizkuntza baten erabilera %4,8koa da Araban, %2,8koa Bizkaian eta %3,3koa Gipuzkoan.

63. grafikoa. Etxean erabiltzen den hizkuntza lurraldearen arabera. EAE, 2021 (%)

Iturria: EUSTAT eta EAS.

Azken hogeita hamar urteotan, etxean euskara erabiltzen dutenen ehunekoak gora egin du Araban, bai ehunekotan (1,2 puntu), baita kopuru absolututan ere (ia 4.600 pertsona gehiago). Bizkaian ehunekoak 0,7 puntu egin du behera, kopuru absolututan 8.100 pertsona gutxiago dira etxean euskara erabiltzen dutenak. Gipuzkoan, jaitsiera 2,3 puntukoa izan da, eta 3.900 pertsona gutxiago dira etxean euskara erabiltzen dutenak.

1991 eta 2021 bitartean, etxean euskara eta gaztelania erabiltzen dutenen ehunekoak eta kopuru absolutuak gora egin dute hiru lurraldeetan. Araban 4,1 puntu egin du gora (14.300 pertsona gehiago), Bizkaian 3,6 puntu (40.000 pertsona gehiago) eta Gipuzkoan 2,7 puntu (24.500 pertsona gehiago).

Gaztelania erabiltzen dutenen ehunekoak behera egin du hiru lurraldeetan: Araban 9,7 puntu, Bizkaian 5,2 puntu eta Gipuzkoan 3,1 puntu. Kopuru absolutuetan, baina, beherakada Bizkaian izan da (60.000 pertsona gutxiago), ez ostera Araban eta Gipuzkoan (23.100 eta 3.700 pertsona gehiago, hurrenez hurren).

Azken hogeita hamar urteotan, etxean euskara edo gaztelania ez den beste hizkuntza bat erabiltzen dutenen bilakaera positiboa izan da hiru lurraldeetan: 4,4 puntu Araban (14.200 pertsona gehiago), 2,3 puntu Bizkaian (24.300 pertsona gehiago) eta 2,8 puntu Gipuzkoan (19.100 pertsona gehiago).

24. taula. Etxean erabiltzen den hizkuntzaren bilakaera lurraldearen arabera. EAE, 1991-2021

	2021				
	Guztira	Euskara	Euskara eta gaztelania	Gaztelania	Beste bat
EAE	2.110.702	271.482	240.158	1.530.923	68.139
Araba	316.273	7.984	21.408	271.571	15.310
Bizkaia	1.103.170	90.529	106.367	875.906	30.368
Gipuzkoa	691.259	172.969	112.383	383.446	22.461
Ehunekoak					
EAE	100	12,9	11,4	72,5	3,2
Araba	100	2,5	6,8	85,9	4,8
Bizkaia	100	8,2	9,6	79,4	2,8
Gipuzkoa	100	25,0	16,3	55,5	3,3
	1991				
	Guztira	Euskara	Euskara eta gaztelania	Gaztelania	Beste bat
EAE	2.014.856	279.042	161.260	1.564.144	10.410
Araba	259.887	3.389	7.040	248.382	1.076
Bizkaia	1.107.120	98.702	66.352	936.073	5.993
Gipuzkoa	647.849	176.951	87.868	379.689	3.341
Ehunekoak					
EAE	100	13,9	8,0	77,6	0,5
Araba	100	1,3	2,7	95,6	0,4
Bizkaia	100	8,9	6,0	84,6	0,5
Gipuzkoa	100	27,3	13,6	58,6	0,5

Iturria: EUSTAT eta EAS.

4.3. Etxean erabiltzen den hizkuntza eskualdearen arabera


EAEko eskualdeak lau multzotan banatu daitezke, etxeko euskararen erabilera-mailaren arabera. Etxean euskara gehien erabiltzen dutenak EAEko lau eskualde euskaldunenetako bizilagunak dira. Eskualde horietan nagusi dira etxean euskara erabiltzen dutenak: Lea-Artibai (%56,4), Urola Kosta (%48,3), Tolosaldea (%43,3) eta Busturialdea (%37,5). Lau eskualde horietan, etxean euskara eta gaztelania erabiltzen dutenen ehunekoa EAEko batez bestekoaren gainetik dago (%15 eta %19 bitartean), Lea-Artibain izan ezik (%12,2). Eskualde horietan etxean gaztelania erabiltzen dutenen ehunekoak EAEko txikiak dira (%45 baino txikiagoak), eta etxean euskara eta gaztelania ez den beste hizkuntza bat erabiltzen dutenak %3 baino gehiago dira. Lau eskualde horietan EAEko biztanleen %9 eta euskaldunen %15,9 bizi dira, eta lehen hizkuntza euskara duten herritarrak %50 eta %60 bitartean dira.

Bigarren multzoa osatzen duten eskualdeetan, etxean euskara erabiltzen dutenak bizilagunen laurdena eta herena bitartean dira: Debagoiena (%32,1), Goierri (%30,8), Debabarrena (%26,9) eta Arratia Nerbioi (%23,3). Eskualde horietan, etxean euskara eta gaztelania erabiltzen dutenen ehunekoa, aurreko multzoan bezalaxe, EAEko batez bestekoaren gainetik dago (%15 eta %19 bitartean). Lau eskualde horietako biztanleen erdiak gaztelania erabiltzen du etxean. Azkenik, gaztelania ez den beste hizkuntza bat erabiltzen duten ehunekoa %3 eta %4 bitartekoa da. Eskualde horietan EAEko biztanleen %9,6 eta euskaldunen %14 bizi dira, eta %30 eta %45 bitartean dute euskara lehen hizkuntza.

Hirugarren multzo batean etxean euskara %11 eta %17 bitartean erabiltzen duten eskualdeak daude: Donostialdea (%16,6), Durangaldea (%16,1), Plentzia-Mungia (%14,1), Bidasoa Beherea (%14) eta Gorbeialdea (%11,8). Etxean euskara eta gaztelania erabiltzen dutenen ehunekoa %14 eta %16 bitartean dago. Bost eskualde horietako biztanle gehienek gaztelania erabiltzen dute etxean (%65 eta %73 artean). Euskara eta gaztelania ez den beste hizkuntza bat erabiltzen dutenak %2 eta %4 bitartean daude. Eskualde horietan EAEko biztanleen laurdena bizi da (%26,2) eta euskaldunen ia herena (%30,4). Bost eskualde horietan lehen hizkuntza euskara duten ehunekoa %17 eta %27 bitartekoa da.

EAEko gainerako zazpi eskualdeetan, etxean euskara erabiltzen duten ehunekoa %4 baino txikiagoa da: Bilbo Handia (%3,6), Enkarterri (%3,1), Mendialdea (%3,1), Aiaraldea (%2,8), Arabako Lautada (%2,2), Arabako Errioxa (%1,8) eta Añana (%1,4). Etxean euskara eta gaztelania erabiltzen duten ehunekoa handiagoa da (%4 eta %9 bitartekoa). Eskualde horietan erabat nagusi dira (%85etik gora) etxean gaztelania erabiltzen dutenak.

64. grafikoa. Etxean euskara edo euskara eta gaztelania erabiltzen dutenak eskualdearen arabera. EAE, 2021 (%)



Iturria: EUSTAT eta EAS.

Euskara edo gaztelania ez den beste hizkuntza baten erabilerari dagokionez, bi talde egin daitezke. Lehenengo taldean, EAEko batez bestekoaren azpitik daude (% 2,5 eta % 3 bitartean): Bilbo Handia, Aiaraaldea, Mendialdea eta Enkarterri. Bigarrenetan, EAEko ehunekorik handienak dituztenak: Arabako Errioxa (% 6,1), Arabako Lautada (% 5,1) eta Añana (% 4). Zazpi eskualde horietan bizi dira EAEko biztanleen erdia baino gehiago (% 55,2) eta euskaldunen herena baino gehiago (% 39,6). Eskualde horietan lehen hizkuntza euskara dutenen ehunekoak % 14,8 da.

Azken hogeita hamar urteotan, etxean euskara erabiltzen dutenen ehunekoak behera egin du eskualde euskaldunetan eta gora eskualde erdaldunetan. Etxean euskara eta gaztelania erabiltzen dutenen ehunekoak, aldiz, gora egin du ia eskualde guztietan.

1991 eta 2021 bitartean, etxean euskara erabiltzen dutenen jaitsierarik handiena izan duten eskualdeak Lea-Artibai (18,5 puntu), Urola Kosta (16,1 puntu), Busturialdea (16 puntu), Plentzia-Mungia (13,7 puntu), Arratia-Nerbioi (12,8 puntu), Durangaldea (8,9

puntu) eta Gorbeialdea (7,7 puntu) izan dira. Jaitsiera txikiagoa izan da Tolosaldea (7,2 puntu), Debagoiena (6,3 puntu), Debabarrena (4,8 puntu) eta Goierri (4,5 puntu) eskualdeetan. Donostialdean gora egin du etxean euskara erabiltzen dutenen ehunekoak (1,8 puntu).

Etxean euskara eta gaztelania erabiltzen dutenen ehunekoak gora egin du EAEko ia eskualde guztietan. Bi eskualde hauetan, ordea, behera egin du: Busturialdean 1,3 puntu eta Plentzia-Mungian 0,7 puntu. Oro har, hazkundera handiagoa izan da eskualde erdaldunetan (3 eta 6 puntu bitartekoa) eskualde euskaldunagoetan baino (1 eta 3 puntu bitartekoa).

Etxean gaztelania erabiltzen dutenen ehunekoak behera egin du eskualde erdaldunetan (Enkarterrin 11,8 puntu, Arabako Errioxan 11,4 puntu, Arabako Mendialdean 10,9 puntu edo Arabako Lautadan 9,9 puntu, esaterako) eta gora eskualde euskaldunetan (Busturialdean 14 puntu, Lea-Artibain 12,3 puntu, Urola Kostan 9,7 puntu, esaterako).

1991 eta 2021 bitartean, euskara edo gaztelania ez den beste hizkuntza baten erabilerak gora egin du EAEko eskualde guztietan. Batez besteko igoera 3 puntukoa izan bada ere, badira eskualde batzuk oso gaineratik daudenak: Arabako Errioxa 6 puntu eta Arabako Lautada 4,6 puntu.

25. taula. Etxean erabiltzen den hizkuntzaren bilakaera eskualdearen arabera. EAE, 1991-2021 (%)

		Euskara		Euskara eta gaztelania		Gaztelania		Beste bat	
		1991	2021	1991	2021	1991	2021	1991	2021
Araba	Aiaraldea	1,1	2,8	4,3	9,1	94,4	85,1	0,2	3,0
	Añana	0,2	1,4	0,8	4,6	98,9	90,1	0,1	4,0
	Arabako Errioxa	0,3	1,8	0,8	4,7	98,7	87,4	0,1	6,1
	Arabako Lautada	0,9	2,2	2,5	6,4	96,1	86,2	0,5	5,1
	Gorbeialdea	19,5	11,8	7,1	12,1	73,0	72,7	0,4	3,4
	Mendialdea	0,5	3,1	0,7	6,0	98,8	87,9	0,0	3,0
Bizkaia	Arratia-Nerbioi	36,0	23,3	13,1	15,9	50,6	58,1	0,2	2,8
	Bilbo Handia	2,0	3,6	4,1	7,8	93,4	85,9	0,5	2,7
	Busturialdea	53,5	37,5	20,1	18,8	26,2	40,2	0,2	3,6
	Durangaldea	25,0	16,1	12,8	16,2	61,2	64,7	1,0	3,1
	Enkarterri	0,1	3,1	1,0	7,4	98,8	87,0	0,1	2,5
	Lea-Artibai	74,9	56,4	8,8	12,2	15,5	27,8	0,8	3,7
	Plentzia-Mungia	27,8	14,1	17,2	16,5	54,7	66,9	0,4	2,4
Gipuzkoa	Bidasoa Beherea	12,5	14,0	12,0	14,8	75,1	67,1	0,3	4,2
	Debabarrena	31,6	26,9	17,7	18,6	50,0	50,4	0,7	4,1
	Debagoiena	38,4	32,1	17,2	18,6	44,0	46,4	0,4	2,9
	Donostialdea	14,8	16,6	12,2	15,6	72,4	65,0	0,7	2,8
	Goierrri	35,3	30,8	14,7	17,6	49,5	47,4	0,5	4,1
	Tolosaldea	50,5	43,3	15,4	16,8	33,9	36,5	0,2	3,4
	Urola Kosta	64,4	48,3	11,8	15,5	23,5	33,2	0,3	3,0

Iturria: EUSTAT eta EAS.

4.4. Etxean erabiltzen den hizkuntza gune soziolinguistikoaren arabera

Lehen gune soziolinguistikoan (euskaldunak %33 baino gutxiago dira) etxean euskara erabiltzen dutenak %2,8 dira eta euskara eta gaztelania erabiltzen dutenak %6,9. Lehenengo gune soziolinguistikoan %86,9k gaztelania erabiltzen du etxean. Euskara edo gaztelania ez den beste hizkuntza bat erabiltzen dutenak %3,4 dira.


Bigarren guneko soziolinguistikoa (euskaldunak %33 eta %50 bitartean) etxean euskara erabiltzen dutenak %10,3 dira, eta euskara eta gaztelania erabiltzen dutenak %13,2. Bigarren guneko hiru laurdenak (%73,7) gaztelania erabiltzen du etxean. Euskara edo gaztelania ez den beste hizkuntza bat erabiltzen dutenak %2,8 dira.

Hirugarren guneko soziolinguistikoa (euskaldunak %50 eta %80 bitartean) biztanleen %29,1ek euskara erabiltzen du etxean. Euskara eta gaztelania erabiltzen dutenak %18,5 dira. Hirugarren guneko biztanleen erdiak (%49,1) gaztelania erabiltzen du etxean eta %3,3k euskara edo gaztelania ez den beste hizkuntza bat.


Azkenik, laugarren guneko soziolinguistikoa (euskaldunak %80 edo gehiago) %59,9k euskara erabiltzen du etxean, eta %12,3k euskara eta gaztelania, biak. Gaztelania erabiltzen dutenak laurden bat dira (%24,6), eta euskara edo gaztelania ez den beste hizkuntza bat erabiltzen dutenak %3,1.

65. grafikoa. Etxean erabiltzen den hizkuntza guneko soziolinguistikoaren arabera. EAE, 2021 (%)


1. guneko soziolinguistikoa (< %33)




2. guneko soziolinguistikoa (%33-%50)



3. guneko soziolinguistikoa (%50-%80)



4. guneko soziolinguistikoa (≥ %80)



Euskara
Euskara eta gaztelania
Gaztelania
Beste bat

Azken hogeita hamar urteotako bilakaerari dagokionez, lehenengo guneko soziolinguistikoa, etxean euskara erabiltzen dutenen ehunekoak ia ez du aldaketarik izan 1991 eta 2021 artean (0,4 puntu). Etxean euskara eta gaztelania erabiltzen dutenen ehunekoak, aldiz, gora egin du 1,7 puntu. Etxean gaztelania erabiltzen dutenen ehunekoak 4,2 puntu egin du behera, eta etxean euskara edo gaztelania ez den beste hizkuntza bat erabiltzen dutenen ehunekoa 2,8 puntu handiago da 2021ean 1991n baino.

Bigarren guneko soziolinguistikoa, etxean euskara erabiltzen dutenen ehunekoak behera egin du azken hogeita hamar urteotan (14,2 puntu), baita euskara eta gaztelania erabiltzen dutenena ere (2,6 puntu). Etxean gaztelania erabiltzen dutenen ehunekoak eta euskara edo gaztelania ez den beste hizkuntza bat erabiltzen dutenen ehunekoak, aldiz, gora egin du (14,3 eta 2,4 puntu, hurrenez hurren).

Hirugarren guneko soziolinguistikoa ere behera egin du etxean euskara erabiltzen dutenen ehunekoak 1991 eta 2021 bitartean (14,2 puntu). Euskara eta gaztelania erabiltzen dutenen ehunekoak, aldiz, gora (1,3 puntu). Gaztelaniaren erabilera eta euskara edo gaztelania ez den beste hizkuntza batena ere hazi egin da (10 puntu eta 2,9 puntu, hurrenez hurren).

Laugarren guneko soziolinguistikoa, etxean euskara erabiltzen dutenen ehunekoak behera egin du 1991 eta 2021 artean (18,5 puntu); etxean euskara eta gaztelania erabiltzen dutenen ehunekoak, aldiz, gora (2,2 puntu). Etxean gaztelania erabiltzen dutenen ehunekoak 13,5 puntu egin du gora eta euskara edo gaztelania ez den beste hizkuntza bat erabiltzen dutenena 2,7 puntu.

Laburbilduz, 1991 eta 2021 artean etxean euskara erabiltzen dutenen ehunekoak behera egin du lau guneko soziolinguistikoetan. 2021ean 1991n baino 7.500 pertsona gutxiago daude EAEn etxean euskara erabiltzen dutenak. Aldi berean, etxean euskara eta gaztelania erabiltzen dutenen ehunekoa hazi egin da lehenengo, bigarren eta laugarren guneko soziolinguistikoetan; hirugarren gunean, aldiz, behera egin du. Hala ere, duela 30 urte baino 78.800 pertsona gehiago daude etxean euskara eta gaztelania, biak erabiltzen dituztenak. Etxean gaztelania erabiltzen dutenen ehunekoa lehenengo guneko soziolinguistikoa baino ez da jaitsi; hala ere, 1991n baino 33.200 pertsona gutxiago daude 2021ean etxean gaztelania erabiltzen dutenak. Azkenik, aldaketarik handiena euskara edo gaztelania ez den beste hizkuntza bat erabiltzen dutenen artean gertatu da. Lau guneko soziolinguistikoetan egin dute gora, eta duela 30 urte baino 57.700 pertsona gehiago dira.

26. taula. Etxean erabiltzen den hizkuntzaren bilakaera guneko soziolinguistikoaren arabera. EAE, 1991-2021 (%)

	1. gunea		2. gunea		3. gunea		4. gunea	
	1991	2021	1991	2021	1991	2021	1991	2021
Euskara	3,2	2,8	24,5	10,3	43,3	29,1	78,4	59,9
Euskara eta gaztelania	5,2	6,9	15,8	13,2	17,2	18,5	10,1	12,3
Gaztelania	91,1	86,9	59,4	73,7	39,1	49,1	11,1	24,6
Beste bat	0,6	3,4	0,4	2,8	0,4	3,3	0,4	3,1

Iturria: EUSTAT eta EAS.

4.5. Etxean erabiltzen den hizkuntza udalerriaren arabera

EAEko udalerriak bost multzotan mailakatu daitezke, etxean euskara erabiltzen dutenen ehunekoaren arabera.

Lehenengo multzoa 16 udalerri osatzen dute. Eremu euskaldunean daude eta txikiak dira. Udalerririk horietako herritarren %70ek baino gehiagok erabiltzen du euskara etxean. EAEko biztanleen %0,3 eta euskaldunen %0,6 bizi dira udalerririk horietan. Euskaldunen ehunekoa %85etik gorakoa da udalerririk horietan guztietan. Lehen hizkuntzari dagokionez, etxean euskara jaso dutenen ehunekoa %70etik gorakoa da, hau da, bat datoz etxean euskara jaso dutenen eta etxean euskara erabiltzen dutenen ehunekoak.

Etxean euskara erabiltzen duten horiei euskara eta gaztelania erabiltzen dutenak gehitzen badizkiegu, udalerririk horietan etxean euskara gaztelania beste edo gehiago erabiltzen duten herritarren %82 dira batez beste. Gaztelania erabiltzen duen batez beste %15,3k eta euskara eta gaztelania ez den beste hizkuntza bat %2,4k.

Bigarren multzoa 54 udalerririk osatzen dute; 47 udalerririk 4. guneko soziolinguistikoan daude eta gainerako 7ak 3. gunean. Azpeitia, Azkoitia, Ondarroa eta Lekeitio dira multzo horietako udalerririk handienak. Bigarren multzoko udalerririk etxean euskara erabiltzen dutenen ehunekoa %50 eta %70 bitartekoa da. Udalerririk horietan EAEko biztanleen %4,2 eta euskaldunen %8 bizi dira. Lehen hizkuntzari dagokionez, etxean euskara jaso dutenen ehunekoa %55 eta %80 artean dago.

Etxean euskara erabiltzen duten horiei euskara eta gaztelania erabiltzen dutenak gehitzen badizkiegu, etxean euskara gaztelania beste edo gehiago erabiltzen duten herritarrak %69 dira batez beste. Etxean gaztelania erabiltzen du batez beste %27,2k eta euskara eta gaztelania ez den beste hizkuntza bat %3,5ek.

Hirugarren multzoa 41 udalerri osatzen dute; 36 udalerri hirugarren gune soziolinguistikokoan daude eta 5 laugarrenenean. Horien artean daude Zarautz, Tolosa, Bermeo, Gernika-Lumo, Bergara eta Oñati. Etxeko erabilerari dagokionez, etxean euskara erabiltzen dutenen ehunekoa %30 eta %50 bitartekoa da. EAEko biztanleen %9,1 eta euskaldunen %15,4 bizi dira udalerri horietan. Lehen hizkuntzari dagokionez, etxean euskara jaso dutenen ehunekoa %45 eta %65 artean dago.

Etxean euskara erabiltzen duten horiei euskara eta gaztelania erabiltzen dutenak gehitzen badizkiegu, etxean euskara gaztelania beste edo gehiago erabiltzen duten herritarrak %57,3 dira batez beste. Etxean gaztelania erabiltzen du batez beste %39,8k eta euskara eta gaztelania ez den beste hizkuntza bat %2,9k.


Laugarren multzoa 50 udalerri osatzen dute; 42 udalerri hirugarren gune soziolinguistikokoan daude eta 8 bigarrenenean. Multzo honetan daude Donostia, Irun, Errenteria, Durango, Eibar eta Arrasate. Etxeko hizkuntzari dagokionez, etxean euskara erabiltzen dutenen ehunekoa %10 eta %30 bitartekoa da. EAEko biztanleen %28,8 eta euskaldunen %34,3 bizi dira udalerri horietan. Lehen hizkuntzari dagokionez, etxean euskara jaso dutenen ehunekoa %15 eta %55 artean dago.

Etxean euskara erabiltzen duten horiei euskara eta gaztelania erabiltzen dutenak gehitzen badizkiegu, etxean euskara gaztelania beste edo gehiago erabiltzen duten herritarrak %10 eta %40 bitartean daude. Etxean gaztelania erabiltzen du batez beste %63,3k eta euskara eta gaztelania ez den beste hizkuntza bat %3,3k.

Bosgarren multzoa 90 udalerri osatzen dute; 56 udalerri lehen gune soziolinguistikokoan daude eta 34 bigarrenenean. Multzo honetan daude Bilbo, Gasteiz, Bilbo Handiko udalerriak eta Arabako ia udalerri guztiak. Etxeko erabilerari dagokionez, etxean euskara erabiltzen dutenen ehunekoa %10 baino txikiagoa da. EAEko biztanleen %57,6 eta euskaldunen %41,7 bizi dira udalerri horietan. Lehen hizkuntzari dagokionez, etxean euskara jaso dutenen ehunekoa %20tik beherakoa da.

Etxean euskara erabiltzen duten horiei euskara eta gaztelania erabiltzen dutenak gehitzen badizkiegu, etxean euskara gaztelania beste edo gehiago erabiltzen duten herritarrak %5 eta %25 bitartean daude. Etxean gaztelania erabiltzen du batez beste %85,5ek eta euskara eta gaztelania ez den beste hizkuntza bat %3,2k.

66. grafikoa. Etxean euskara erabiltzen dutenen bilakaera udalerriaren arabera. EAE, 1991-2021 (%)




Iturria: EUSTAT eta EAS.

4.6. Etxean erabiltzen den hizkuntza adinaren arabera

2021eko Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Zentsuaren arabera, 20 urtetik beherako gazteen artean dago etxean euskara erabiltzen dutenen ehunekorik handiena. 20 urtetik beherakoek %18,4k erabiltzen du euskara etxean. Gainerako adin-taldeetan, etxean euskara erabiltzen dutenak %15 baino gutxiago dira, baita 85 urtetik gorakoek artean ere (%14,3).

Etxean euskara eta gaztelania erabiltzen dutenen ehunekoak gora egiten du adinak behera egin ahala. Izan ere, etxean euskara eta gaztelania erabiltzen dutenak %10 baino gutxiago dira 50 urtetik beherakoek artean eta %20 baino gehiago 15 urtetik beherakoek artean. 20 urtetik beherako gazteek etxean gehiago erabiltzen dute euskara eta gaztelania euskara bakarrik baino.

67. grafikoa. Etxean euskara eta euskara gaztelaniarekin batera erabiltzen dutenak adinaren arabera. EAE, 2021 (%)




Iturria: EUSTAT eta EAS.

Gaztelaniaren erabilera etxean nagusi da adin-talde guztietan. Etxean gaztelania erabiltzen dutenak %75 baino gehiago dira 50 urtetik gorakoen artean. Hala ere, gaztelaniaren erabilerak behera egiten du 65 urtetik beherakoen artean, eta jaitsiera hori areagotu egiten da adinak behera egin ahala. 10 eta 14 urte bitarteko gazteen %56,9k erabiltzen dute gaztelania etxean eta 5 eta 9 urte bitartekoak %49,1ek.

Azkenik, euskara edo gaztelania ez den beste hizkuntza bat erabiltzen dutenen ehunekoa %2 baino txikiagoa da 65 urtetik gorako herritarren artean. 65 urtetik beherako herritarren artean etxean beste hizkuntza bat erabiltzen dutenen ehunekoak gora egiten du adinak behera egin ahala. Etxean beste hizkuntza bat gehien erabiltzen dutenak 25 eta 40 urte bitarteko herritarrak dira (batez beste %6,6). 25 urtetik beherako gazteen artean etxean beste hizkuntza bat erabiltzen dutenen ehunekoa %3,8 da batez beste.

68. grafikoa. Etxean gaztelania eta beste hizkuntza bat erabiltzen dutenak adinaren arabera. EAE, 2021 (%)



Iturria: EUSTAT eta EAS.

Hiru lurraldeetako adinaren arabera joerak bat datoz oro har EAEn buruz azaldutakoekin. Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan etxean euskara erabiltzen dutenen ehunekoak gora egiten du adinak behera egin ahala. Hiru lurraldeetan, 20 urtetik beherako gazteak dira etxean euskara gehien erabiltzen dutenak. 75 urtetik gorakoan artean, Bizkaian eta Gipuzkoan etxean euskara erabiltzen dutenen ehunekoa helduena baino handiagoa da. Araban, aldiz, ez da halakorik gertatzen: 70 urtetik gorakoan dago euskara erabiltzen dutenen ehunekorik txikiena.

Etxean euskara eta gaztelania erabiltzen dutenen joera ere errepikatu egiten da hiru lurraldeetan eta EAEn. Hau da, adinak behera egin ahala gora egiten du etxean hizkuntza biak erabiltzen dutenen ehunekoak. Hiru lurraldeetan 20 urtetik beherako gazteak dira etxean hizkuntza biak gehien erabiltzen dituztenak. Aldea 3 bat puntukoa da gainerako adin-taldeekiko.

Gaztelania erabiltzen dutenak nagusi dira hiru lurraldeetako adin-talde guztietan, Gipuzkoako 15 urtetik beherako gazteen artean izan ezik. Izan ere, 15 urtetik beherako gazte gipuzkoarren artean gehiago dira etxean euskara erabiltzen dutenak (%37,2 versus %32,3).

Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan 25 eta 45 urte bitartekoak dira etxean euskara edo gaztelania ez den beste hizkuntza bat gehien erabiltzen dutenak. Aldea dago lurraldeen artean: Arabako ehunekoa (batez beste %9,3) Bizkaikoa eta Gipuzkoakoa baino handiagoa da (%5,3 eta %6,1, hurrenez hurren).

Azken 30 urteotako bilakaerari dagokionez, etxean euskara erabiltzen dutenen ehunekoa hazi egin da 30 urtetik beherako gazteen artean. Hazkunderik handiena (7,2 puntu) 5-9 urte bitarteko umeek izan dute. 30 eta 50 urtekoen artean etxean euskara erabiltzen dutenen ehunekoa jaitsi egin da, baina jaitsiera txikia izan da (puntu batekoa baino txikiagoa). Azkenik, 50 urtetik gorakoan artean jaitsi egin da etxean euskara erabiltzen dutenen ehunekoa. Jaitsierarik handiena 65 eta 85 urte bitartekoek izan dute (batez beste 8,6 puntu).

Azken hogeita hamar urteotan, etxean euskara eta gaztelania erabiltzen dutenen ehunekoak, oso gutxi bada ere, behera egin du 70 urtetik gorakoan artean; batez besteko jaitsiera puntu batekoa baino txikiagoa izan da. 70 urtetik beherako adin-talde guztietan, aldiz, hizkuntza bien erabilerak gora egin du, eta hazkundera handiagoa izan da adinak behera egin ahala: 15 urtetik beherakoan artean 10 puntu baino gehiago hazi da.

1991 eta 2021 bitartean, etxean gaztelania erabiltzen dutenen ehunekoak behera egin du 60 urte baino gutxiagokoan artean eta gora 60 urte baino gehiagokoan

artean. Beherakadarik handiena gazteek izan dute (15 urtetik beherako gazteen artean, batez beste 21 puntu).

Azken hogeita hamar urteotan, etxean euskara edo gaztelania ez den beste hizkuntza bat erabiltzen dutenen ehunekoa hazi egin da adin-talde guztietan. Hazkunderik handiena 25 eta 45 urte bitartekoek izan dute (batez beste 5,6 puntu).

4.7. Etxean erabiltzen den hizkuntza sexuaren arabera

Hizkuntzaren erabilera etxean sexuaren arabera aztertuz gero, emakumezkoek eta gizonezkoek egiten duten euskararen erabileraren artean dagoen aldea puntu batekoa edo txikiagoa da bai guztira baita adin-talde guztietan ere. Aldea txikia den arren, emakumeek euskara gehiago erabiltzen dute 60 urtetik beherako adin-talde guztietan. 60 urtetik gorakoek artean, aldiz, gizonezkoak dira zertxobait gehiago erabiltzen dutenak.

Etxean euskara eta gaztelania erabiltzen dutenen artean, emakumezkoek gehiago erabiltzen dute ia adin-talde guztietan. Alderik handiena 40 eta 60 urte bitartekoek dute (puntu batetik gora).

Etxean gaztelania erabiltzen dutenak, aldiz, gehiago dira gizonezkoak emakumezkoak baino 65 urtetik beherako adin-talde guztietan, bereziki 30 eta 60 urte bitartekoek artean (puntu batetik gora).

Azkenik, etxean euskara edo gaztelania ez den beste hizkuntza bat erabiltzen dutenen ehunekoak oso antzekoak dira sexuaren eta adinaren arabera (aldea 0,3 puntukoa edo txikiagoa da).

27. taula. Etxean erabiltzen den hizkuntza sexuaren eta adinaren arabera. EAE, 2021 (%)

	Euskara		Euskara eta gaztelania		Gaztelania		Beste bat	
	Gizon.	Emak.	Gizon.	Emak.	Gizon.	Emak.	Gizon.	Emak.
5-9	21,1	21,4	25,0	25,1	49,3	49,0	4,7	4,4
10-14	18,7	18,9	21,0	20,9	56,8	56,9	3,5	3,3
15-19	14,9	15,7	16,1	16,4	65,9	65,0	3,1	2,8
20-24	13,7	14,3	13,3	13,8	68,7	67,8	4,3	4,1
25-29	12,7	12,6	12,2	12,2	69,0	69,0	6,1	6,2
30-34	11,4	12,3	12,1	12,2	69,8	68,6	6,7	7,0
35-39	11,9	12,8	13,1	13,8	68,1	66,7	6,9	6,8
40-44	12,5	13,8	11,3	12,6	71,4	68,8	4,8	4,8
45-49	11,7	12,3	9,8	11,1	74,9	73,0	3,7	3,7
50-54	10,6	11,3	8,6	9,7	78,1	76,2	2,7	2,8
55-59	10,0	10,5	8,6	9,7	79,6	77,7	1,9	2,1
60-64	10,7	10,4	8,2	8,7	79,6	79,4	1,4	1,6
65-69	10,9	10,2	7,4	7,3	80,5	81,2	1,2	1,2
70-74	12,1	11,4	6,6	6,7	80,6	81,0	0,7	0,9
75-79	11,9	11,2	6,6	6,5	80,8	81,5	0,7	0,7
80-84	13,3	12,4	6,1	6,2	79,8	80,7	0,8	0,7
≥ 85	14,7	14,2	6,3	6,8	78,5	78,4	0,5	0,6
Guztira	12,8	13,0	11,3	11,4	72,6	72,5	3,3	3,1

Iturria: EUSTAT eta EAS.

4.8. Euskaldunek etxean erabiltzen duten hizkuntza adinaren, sexuaren eta lehen hizkuntzaren arabera

Atal honetan, etxeko hizkuntzaren erabilera aztertuko da, baina euskaldunak bakarrik hartuko dira kontuan.


EAEn euskaldunen %30,2k erabiltzen du euskara etxean, %26,7k euskara eta gaztelania erabiltzen ditu, eta %43k ez du euskararik erabiltzen etxean.

Duela hogeita hamar urte, euskaldunen erdiak baino gehiagok (%52,5) erabiltzen zuen euskara etxean, eta euskaldunen ia laurdenak (%24,1) euskara eta gaztelania erabiltzen zituen. Etxean euskara erabiltzen ez zuten euskaldunak %23,4 ziren.

Hortaz, 1991 eta 2021 bitartean, etxean euskara erabiltzen duten euskaldunen ehunekoak 22,3 puntu egin du behera, eta beste horrenbeste hazi da etxean euskara erabiltzen ez duten euskaldunen ehunekoa (20 puntu).

Etxean euskara eta gaztelania erabiltzen duten euskaldunen ehunekoak 2,6 puntu egin du gora 1991 eta 2021 bitartean. Hazkundea azken hamarkadan gertatu da.

69. grafikoa. Euskaldunek etxean erabiltzen duten hizkuntzaren bilakaera. EAE, 1991-2021 (%)



Iturria: EUSTAT eta EAS.

Adinari dagokionez, etxean euskara erabiltzen duten euskaldunen ehunekoa jaitsi egiten da adinak behera egin ahala. Izan ere, 70 urtetik gorako euskaldunen artean, %50 baino gehiago dira etxean euskara erabiltzen dutenak. Adin horretatik behera erabilera jaitsi egiten da, 15 urtera iritsi arte. 15 urtetik beherako gazteen artean hazi egin da etxean euskara erabiltzen dutenen ehunekoa.

Etxean euskara eta gaztelania erabiltzen duten euskaldunei dagokienez, 35 urtetik gorakoak eta 15 urtetik beherako gazteak dira etxean hizkuntza biak gehien erabiltzen dituztenak. Bi multzoetan %20tik gora dira etxean hizkuntza biak erabiltzen dituztenak.

Etxean euskara ez den beste hizkuntza bat erabiltzen duten euskaldunei dagokienez, erabilera handiagoa da adinak behera egin ahala. 75 urtetik gorako

euskaldunen %20k baino gutxiagok erabiltzen du euskara ez den beste hizkuntza bat etxean, eta 15 eta 35 urte bitarteko euskaldunen erdiak baino gehiagok. 15 urtetik beherako euskaldunen artean txikiagoa da etxean euskara erabiltzen ez dutenen ehunekoa.

Sexuari dagokionez, ez dago alde esanguratsurik euskararen erabileran emakumezko euskaldunen eta gizonezkoen artean (0,2 puntu). Adinaren arabera, 40 urtetik beherakoen artean aldea puntu batekoa baino txikiagoa da, eta ia beti emakumezko euskaldunen aldekoa. 45 urtetik gora, aldiz, aldea areagotu egiten da eta euskararen erabilera handiagoa da gizonezko euskaldunen artean.

Etxean euskara eta gaztelania edo euskara ez den beste hizkuntza bat erabiltzen duten euskaldunen artean ez dago alde esanguratsurik ez sexuaren ezta adinaren arabera ere.


Euskaldunen erabilera lehen hizkuntzaren arabera aztertuz gero, garbi ikusten da lehen hizkuntzak etxeko erabileran duen eragina. Izan ere, lehen hizkuntzak lotura zuzena du hizkuntza erabiltzeko erraztasunarekin, eta erraztasuna da, harreman-sarearekin batera, euskararen erabilera baldintzatzen duen faktore nagusia.

Lehen hizkuntza euskara duten euskaldunen %62,4k euskara erabiltzen du etxean, %23k euskara eta gaztelania, eta %14,6k ez du euskararik erabiltzen etxean.

Etxean euskara eta gaztelania jaso duten euskaldunen artean, hau da, jatorrizko elebidunen artean, etxean euskara erabiltzen dutenak %17,1 dira eta euskara eta gaztelania erabiltzen dutenak %46,5. Jatorrizko elebidunen %36,4k ez du euskararik erabiltzen etxean.

Lehen hizkuntza euskara ez den beste hizkuntza bat duten euskaldunen artean, hau da, euskal hiztun berrien artean, %9,9k euskara erabiltzen du etxean, %19,8k euskara eta gaztelania. %70,3k ez du euskararik erabiltzen etxean.

70. grafikoa. Euskaldunek etxean erabiltzen duten hizkuntza, lehen hizkuntzaren arabera. EAE, 2021 (%)



Iturria: EUSTAT eta EAS.

Azken hogeita hamar urteotako bilakaerari dagokionez, etxean euskara erabiltzen dutenen ehunekoa jaitsi egin da euskaldun zaharren artean (8,9 puntu) eta igo jatorrizko elebidunen (8,4 puntu) zein euskal hiztun berrien artean (6 puntu).

5. LABURBILDUZ

- Mende hau hasi denetik, aurreko urteetako joerarekin apurtuz, biztanleriak gora egin du EAEn. Horrela, atzerrian jaiotako biztanleriari esker (gazteak eta emakumezkoak gehienak), errekupeazio demografiko txiki bat izan da, nahiz eta saldo begetatiboa negatiboa izan. Batetik, biztanleriaren zahartze-prozesuak aurrera jarraitu du; bestetik, jaiotza-tasa jaitsi egin da.
- Hiru gertaera hauek eragina dute biztanleriaren eta hizkuntzaren bilakaeran: immigrazioak (20 eta 34 urte bitartekoen %26,9 atzerrian jaiotakoa da), zahartze-prozesuak (biztanleriaren %23,5ek 65 urte edo gehiago ditu) eta jaiotza-tasa jaisteak (1981ean 12,7 haur jaiotzen ziren mila biztanleko; 2023an, berriz, tasa erdira jaitsi da: 6,1 haur mila biztanleko).
- Hizkuntza-ereduen ezarpena giltzarria izan da umeak eta gazteak euskalduntzeko. Gaur egun, ikasleen %70,2k D ereduan ikasten du, eta %17,1ek B ereduan. Horrezaz gain, helduen euskalduntzeari esker, euskaldun berrien zein euskaldun hartzaileen ehunekoak hazkunde handia izan du, are handiagoa emakumezkoen kasuan. Izan ere, euskaltegietan euskara ikasten aritu direnen artean, ia hirutik bi emakumezkoak dira, eta horrela izan da urte askoan.
- 2021eko Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Estatistikaren arabera, EAEn 897.878 biztanle euskaldunak dira (%42,5), 322.546 euskaldun hartzaileak (%15,3) eta 890.027 erdaldunak (%42,2). Gaur egun, 1981ean baino 430.000 euskaldun gehiago dago: bikoiztu egin dute ehunekoa (%21,9 versus %42,5).
- Araban %30,1 dira euskaldunak, Bizkaian %37,1 eta Gipuzkoan %56,9. Azken 40 urteotako bilakaerari erreparatuz, lurralde guztietan egin dute gora euskaldunek: Araban 26 puntuko hazkundea izan dute, Bizkaian 22koa eta Gipuzkoan 17koa.
- 1981-2021 aldian, lehen, bigarren eta hirugarren guneko soziolinguistikoetan gora egin dute euskaldunen kopuruak, laugarren gunean, aldiz, behera.

- Euskaldunen adinari erreparatuz, 5-29 urte bitartekoek dute euskaldunen ehunekorik handiena (%60-%90). Euskaldunen ehunekorik txikiena, ordea, 65-84 urte bitartekoek dute (%21-%22). Aldeak handiak dira adinaren arabera.
- Adina sexuarekin gurutzatzean, euskaldunen ehunekoa handiagoa da emakumezkoen artean gizonezkoen artean baino. Bi sexuen artean dagoen aldea nabaria da adin-talde batzuetan. Horrela, 30-64 urte bitarteko emakumezkoek gizonezkoek baino euskaldunen ehuneko handiagoa dute. Alderik handiena Araban dago. Esate baterako, 9 puntuko aldea dago Arabako 40-44 urte bitarteko emakumezkoen eta gizonezko euskaldunen ehunekoan (%29,1 emakumezkoak versus %20 gizonezkoak). Bizkaian eta Gipuzkoan ere badira aldeak, txikiagoak izan arren.
- Lehen hizkuntzari dagokionez, biztanleen %17,7k euskara soilik jaso du etxean eta beste %6,5ek euskara eta gaztelania. 1986ko datuekin alderatuz gero, lehen hizkuntza euskara dutenen ehunekoa ia 3 puntu jaitsi da (%20,6 versus %17,7) eta ia 3 puntu hazi da euskara eta gaztelania dituztenena (%3,7 versus %6,5). Bestalde, gaur egun %5,2 dira lehen hizkuntza euskara eta gaztelania ez den beste hizkuntza bat dutenak, duela hogeita hamabost urte baino 3,4 puntu gehiago.
- 1986an, lehen hizkuntza euskara soilik zeukatenen ehunekorik txikiena 20 urtetik beheragokoak ziren (%16,3). 2021ean, ordea, ehunekorik handiena 20 urtetik beherakoek dute (%20,7), 85 urtetik gorakoekin batera. Beraz, gaur egun duela hogeita hamabost urte baino gehiago transmititzen zaie euskara umeei.
- Era berean, gero eta ume eta gazte gehiago dira gaztelania euskararekin batera jasotzen dutenak etxean. Ehunekoak alderatuz gero, 40 urtetik beherako adin-talde guztietan bikoiztu baino gehiago egin da ehunekoa. Gaur egun, 19 urtetik beherakoek artean %15,5 dira, eta duela hogeita hamabost urte %6,2 ziren.
- Euskaldunak lehen hizkuntzaren arabera aztertuz gero, azken hogeita hamabost urteetan, euskaldunaren profila asko aldatu da: gaur egun euskaldunen erdiak baino gehiagok ez du euskararik jaso etxean (%50,4), hau da, etxetik kanpo euskaldundu da, batez ere eskolan edo euskaltegian, eta beraz, euskaldun berria da. Duela hogeita hamabost urte, lau euskaldunetik hiruk baino gehiagok euskara zuen lehen hizkuntza (%76,8), eta, beraz, euskaldun zaharra zen.
- EAEko biztanleen %12,9k euskara erabiltzen du etxean eta %11,4k euskara eta gaztelania. EAEko biztanleen %72,5ek gaztelania erabiltzen du etxean eta %3,2k euskara edo gaztelania ez den beste hizkuntza bat.

- Azken hogeita hamar urteotan, puntu bat egin du behera etxean euskara hutsean mintzatzen direnen ehunekoak eta 5,1 puntu gaztelania hutsean mintzatzen direnenak. Etxean euskara eta gaztelania erabiltzen dutenen ehunekoak, aldiz, 3,4 puntu egin du gora 1991 eta 2021 bitartean, eta etxean euskara edo gaztelania ez den beste hizkuntza bat erabiltzen dutenen ehunekoak 2,7 puntu.
- Etxeko erabileran alde esanguratsuak daude EAeko hiru lurraldeen artean. Gipuzkoa da, alde handiz, etxean euskararen erabilerarik handiena duen lurraldea. Izan ere, gipuzkoarren laurdenak (%25) euskara erabiltzen du etxean eta %16,3k euskara eta gaztelania. Alde horiek eskualdearen, udalerriaren eta gune soziolinguistikoaren arabera ere handiak dira.
- 20 urtetik beherako gazteen artean dago etxean euskara erabiltzen dutenen ehunekorik handiena. 20 urtetik beherakoen %18,4k erabiltzen du euskara etxean. Gainerako adin-taldeetan, etxean euskara erabiltzen dutenak %15 baino gutxiago dira, baita 85 urtetik gorakoen artean ere (%14,3).
- Etxeko hizkuntzaren erabilera sexuaren arabera aztertuz gero, emakumezkoen eta gizonezkoen euskararen erabileran dagoen aldea puntu batekoa edo txikiagoa da adin-talde guztietan. Aldea txikia den arren, emakumeek euskara gehiago erabiltzen dute 60 urtetik beherako adin-talde guztietan. 60 urtetik gorakoen artean, aldiz, gizonezkoak dira zertxobait gehiago erabiltzen dutenak.
- Lehen hizkuntza euskara duten euskaldunen %62,4k euskara erabiltzen du etxean. Etxean euskara eta gaztelania jaso duten euskaldunen artean, etxean euskara erabiltzen dutenak %17,1 dira eta lehen hizkuntza euskara ez den beste hizkuntza bat duten euskaldunen artean, %9,9. Agerikoa da lehen hizkuntzak etxeko erabileran duen eragina. Izan ere, lehen hizkuntzak lotura zuzena du hizkuntza erabiltzeko erraztasunarekin, eta erraztasuna da, harreman-sarearekin batera, euskararen erabilera baldintzatzen duen faktore nagusia.

6. TAULEN AURKIBIDEA

1. taula.	Biztanleriaren bilakaera. EAE, 1981-2023	13
2. taula.	Hiriburuetako biztanleriaren bilakaera. EAE, 1981-2023	14
3. taula.	Biztanleriaren banaketa adin-talde nagusien eta sexuaren arabera. EAE, 2023	14
4. taula.	Biztanleriaren bilakaera adin-talde nagusien arabera. EAE, 1981-2023 (%)	15
5. taula.	85 urte edo gehiagoko biztanleriaren bilakaera sexuaren arabera. EAE, 1981-2023 (%)	16
6. taula.	Jaiotza-tasen bilakaera. EAE, 1981-2023 (‰)	16
7. taula.	Udalerrien sailkapena, udalerrien tamainaren arabera. EAE, 2023	17
8. taula.	Bost udalerrri populatuena lurraldearen arabera. EAE, 2023	18
9. taula.	Irakaskuntza ez-unibertsitarioko ikasleen bilakaera hizkuntza-ereduaren arabera. EAE, 1983/84-2022/23	25
10. taula.	Irakaskuntza ez-unibertsitarioko ikasleak ikasmailaren eta hizkuntza-ereduaren arabera. EAE, 2022/23	26
11. taula.	Helduen euskalduntzea ikasmailaren eta lurraldearen arabera. EAE, 2022/23	30
12. taula.	Helduen euskalduntzearen bilakaera ikasmailaren arabera. EAE, 2000/01-2022/23	31
13. taula.	Hizkuntza-gaitasuna lurraldearen arabera. EAE, 2021	38
14. taula.	Euskaldunen bilakaera eskualdearen arabera. EAE, 1981-2021 (%)	42
15. taula.	Gune soziolinguistikoen bilakaera. EAE, 1981-2021	45
16. taula.	Hizkuntza-gaitasuna adinaren arabera. EAE, 2021	49
17. taula.	Euskaldunak lurraldearen eta adinaren arabera. EAE, 2021 (%)	51
18. taula.	Lehen hizkuntza lurraldearen arabera. EAE, 2021	60
19. taula.	Lehen hizkuntzaren bilakaera eskualdearen arabera. EAE, 1986-2021 (%)	64
20. taula.	Lehen hizkuntzaren bilakaera hiriburuaren arabera. EAE, 1986-2021 (%)	69
21. taula.	Euskaldunen bilakaera lehen hizkuntzaren eta eskualdearen arabera. EAE, 1986-2021 (%)	85

22. taula.	Euskaldunen bilakaera lehen hizkuntzaren eta hiriburuaren arabera. EAE, 1986-2021 (%)	89
23. taula.	Euskaldunak lehen hizkuntzaren, adinaren eta sexuaren arabera. EAE, 2021 (%)	93
24. taula.	Euskaldunak lehen hizkuntzaren, adinaren eta sexuaren arabera. EAE, 2021 (%)	98
25. taula.	Etxean erabiltzen den hizkuntzaren bilakaera eskualdearen arabera. EAE, 1991-2021 (%)	102
26. taula.	Etxean erabiltzen den hizkuntzaren bilakaera guneko soziolinguistikoaren arabera. EAE, 2021 (%)	105
27. taula.	Etxean erabiltzen den hizkuntza sexuaren eta adinaren arabera. EAE, 2021 (%)	112

7. GRAFIKOEN AURKIBIDEA

1. grafikoa.	Biztanleriaren piramidearen bilakaera. EAE, 1981-2023 (%)	17
2. grafikoa.	Atzerrian jaiotako biztanleriaren bilakaera. EAE, 2001-2023 (%)	19
3. grafikoa.	Atzerrian jaiotako biztanleria eskualdearen arabera. EAE, 2023 (%)	20
4. grafikoa.	Atzerrian jaiotako biztanle gehien eta gutxien dituzten udalerriak. EAE, 2023 (%)	21
5. grafikoa.	Atzerrian jaiotako biztanleriaren jatorria. EAE, 2023 (%)	21
6. grafikoa.	Atzerrian jaiotako biztanleak sexuaren arabera. EAE, 2023 (%)	22
7. grafikoa.	Atzerrian jaiotako biztanleriaren piramidea. EAE, 2023 (%)	23
8. grafikoa.	Irakaskuntza ez-unibertsitarioko hizkuntza-ereduak. EAE, 2022/23 (%)	23
9. grafikoa.	Hizkuntza-ereduak lurraldearen arabera. EAE, 2022/23 (%)	24
10. grafikoa.	Hizkuntza-ereduen bilakaera. EAE, 1983/84-2022/23 (%)	25
11. grafikoa.	Irakaskuntza ez-unibertsitarioko ikasleen bilakaera ikasmailaren eta hizkuntza-ereduaren arabera. EAE, 2001/02-2022/23 (%)	28
12. grafikoa.	Helduen euskalduntzea ikasmailaren arabera. EAE, 2022/23 (%)	29
13. grafikoa.	Helduen euskalduntzearen bilakaera sexuaren arabera. EAE, 2000/01-2022/23 (%)	31
14. grafikoa.	Helduen euskalduntzea sexuaren eta adinaren arabera. EAE, 2022/23 (%)	32
15. grafikoa.	Helduen euskalduntzea adinaren arabera. EAE, 2022/23 (%)	33
16. grafikoa.	Helduen euskalduntzearen bilakaera adinaren arabera. EAE, 2000/01-2022/23 (%)	33
17. grafikoa.	Hizkuntza-gaitasuna. EAE, 2021 (%)	35
18. grafikoa.	Euskaldunen bilakaera. EAE, 1981-2021	36
19. grafikoa.	Hizkuntza-gaitasunaren bilakaera. EAE, 1981-2021 (%)	37
20. grafikoa.	Hizkuntza-gaitasuna lurraldearen arabera. EAE, 2021 (%)	38
21. grafikoa.	Euskaldunen bilakaera lurraldearen arabera. EAE, 1981-2021 (%)	39
22. grafikoa.	Euskaldunak eskualdearen arabera. EAE, 2021 (%)	40
23. grafikoa.	Gune soziolinguistikoen bilakaera. 1981-2021 (%)	43
24. grafikoa.	Hizkuntza-gaitasuna hiriburuaren arabera. EAE, 2021 (%)	46

25. grafikoa.	Euskaldunak adinaren arabera. EAE, 2021 (%)	48
26. grafikoa.	Euskaldunen bilakaera adinaren arabera. EAE, 1981-2021 (%)	50
27. grafikoa.	Euskaldunak lurraldearen eta sexuaren arabera. EAE, 2021 (%)	52
28. grafikoa.	30-64 urte bitarteko euskaldunak sexuaren eta adinaren arabera. EAE, 2021 (%)	53
29. grafikoa.	15-64 urte bitarteko euskaldunak sexuaren eta adinaren arabera. Araba, 2021 (%)	54
30. grafikoa.	30-64 urte bitarteko euskaldunak sexuaren eta adinaren arabera. Bizkaia, 2021 (%)	55
31. grafikoa.	30-64 urte bitarteko euskaldunak sexuaren eta adinaren arabera. Gipuzkoa, 2021 (%)	55
32. grafikoa.	Lehen hizkuntza. EAE, 2021 (%)	58
33. grafikoa.	Lehen hizkuntzaren bilakaera. EAE, 1986-2021 (%)	58
34. grafikoa.	Lehen hizkuntzaren lurraldearen arabera. EAE, 2021 (%)	59
35. grafikoa.	Lehen hizkuntzaren bilakaera. Araba, 1986-2021 (%)	60
36. grafikoa.	Lehen hizkuntzaren bilakaera. Bizkaia, 1986-2021 (%)	61
37. grafikoa.	Lehen hizkuntzaren bilakaera. Gipuzkoa, 1986-2021 (%)	62
38. grafikoa.	Lehen hizkuntza eskualdearen arabera. EAE, 2021 (%)	63
39. grafikoa.	Lehen hizkuntza guneko soziolinguistikoaren arabera. EAE, 2021 (%)	66
40. grafikoa.	Lehen hizkuntzaren bilakaera guneko soziolinguistikoaren arabera. EAE, 1986-2021 (%)	67
41. grafikoa.	Lehen hizkuntza hiriburuaren arabera. EAE, 2021 (%)	68
42. grafikoa.	Etxean euskara soilik jaso dutenak guneko soziolinguistikoaren arabera. 1986-2021 (%)	70
43. grafikoa.	Lehen hizkuntza adinaren arabera. EAE, 2021 (%)	72
44. grafikoa.	Lehen hizkuntzaren bilakaera adinaren arabera. EAE, 1986-2021 (%)	73
45. grafikoa.	Lehen hizkuntza adinaren arabera. Araba, 2021 (%)	74
46. grafikoa.	Lehen hizkuntza adinaren arabera. Bizkaia, 2021 (%)	75
47. grafikoa.	Lehen hizkuntza adinaren arabera. Gipuzkoa, 2021 (%)	76
48. grafikoa.	Lehen hizkuntza sexuaren eta lurraldearen arabera. EAE, 2021 (%)	77
49. grafikoa.	Lehen hizkuntza adinaren eta sexuaren arabera. EAE, 2021 (%)	78
50. grafikoa.	Lehen hizkuntzaren bilakaera adinaren eta sexuaren arabera. EAE, 1986-2021 (%)	79
51. grafikoa.	Euskaldunak lehen hizkuntzaren arabera. EAE, 2021 (%)	80
52. grafikoa.	Euskaldunen bilakaera lehen hizkuntzaren arabera. EAE, 1986-2021 (%)	81
53. grafikoa.	Euskaldunak lehen hizkuntzaren eta lurraldearen arabera. EAE, 2021 (%)	82
54. grafikoa.	Euskaldunen bilakaera lehen hizkuntzaren eta lurraldearen arabera. EAE, 1986-2021 (%)	83

55. grafikoa.	Euskaldunak lehen hizkuntzaren eta eskualdearen arabera. EAE, 2021 (%)	84
56. grafikoa.	Euskaldunak lehen hizkuntzaren eta gune soziolinguistikoaren arabera. EAE, 2021 (%)	86
57. grafikoa.	Euskaldunen bilakaera lehen hizkuntzaren eta gune soziolinguistikoaren arabera. EAE, 1986-2021 (%)	87
58. grafikoa.	Euskaldunak lehen hizkuntzaren eta hiriburuaren arabera. EAE, 2021 (%)	88
59. grafikoa.	Euskaldunak lehen hizkuntzaren eta adinaren arabera. EAE, 2021 (%)	91
60. grafikoa.	Euskaldunen bilakaera lehen hizkuntzaren eta adinaren arabera. EAE, 1986-2021 (%)	92
61. grafikoa.	Etxean erabiltzen den hizkuntza. EAE, 2021 (%)	95
62. grafikoa.	Etxean erabiltzen den hizkuntzaren bilakaera. EAE, 1991-2021 (%)	96
63. grafikoa.	Etxean erabiltzen den hizkuntza lurraldearen arabera. EAE, 2021 (%)	97
64. grafikoa.	Etxean euskara edo euskara eta gaztelania erabiltzen dutenak eskualdearen arabera. EAE, 2021 (%)	100
65. grafikoa.	Etxean erabiltzen den hizkuntza gune soziolinguistikoaren arabera. EAE, 2021 (%)	103
66. grafikoa.	Etxean euskara erabiltzen dutenen bilakaera udalerriaren arabera. EAE, 1991-2021 (%)	107
67. grafikoa.	Etxean euskara eta euskara gaztelaniarekin batera erabiltzen dutenak adinaren arabera. EAE, 2021 (%)	108
68. grafikoa.	Etxean gaztelania eta beste hizkuntza bat erabiltzen dutenak adinaren arabera. EAE, 2021 (%)	109
69. grafikoa.	Euskaldunek etxean erabiltzen duten hizkuntzaren bilakaera. EAE, 1991-2021 (%)	113
70. grafikoa.	Euskaldunek etxean erabiltzen duten hizkuntza, lehen hizkuntzaren arabera. EAE, 2021 (%)	115

